

GOIERRITARRA



Oporrak!

UDAKO OPORRETAN...

3 KARRETE EROSI ETA 2 ORDAINDU

BADAKIZU! ERREBELATZEAN ERE BERDIN*

*10x15 NEURRIKO ARGAZKIENTZAT BAKARRIK

3x2

BEASAIN

FOTOETXE

FOTO Coen

ORDIZIA

*IRAILAREN 30a ARTE

Arg. M. Albiu

Foto IBILTARIA



✕ Estudio-saioak

✕ Argazki-materialen salmenta
Materiale profesionalen aukera zabala

✕ Argazki eta bideo erreportaiak

✕ Laborategi zerbitzu orokorrak



Errebelatuetan kalitate onena

GEMA M. ARRUGAETA

Argazkilari profesionala

Elkano, 8 (Asto Kale)

DAVID MONTERO ARRUGAETA

Bideo eta T.B.-n espezialdutako teknikaria

☎/faxes: **943 16 22 64**

ORDIZIA



**JAI
ZORIONTSUAK OPA
DIZKIZUEGU!**



Suquia

ERAKUSKETA:

☎ **943 88 23 00**

K. Nagusia, 10 ORDIZIA

**SUKALDEKO
ALTZARIAK
ELEKTRAGAILUAK
ILUMINAZIOA
INSTALAKUNTZA
ELEKTRIKOAK**

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Maidar Azurmendi, Josune Alda-
be, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jaure-
gi, Blanditz Iraola, Andoni Sa-
rriegi, Mari Jose Alustiza.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Ona grafikak
(Artika - Nafarroa)

Tirada: 7.100 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Beasain-Durango
autobideko lanak geld**

Antton Jaime, Gipuzkoako Errepide eta Garraio dipu-
tatuak, Ormaiztegi, Gabi-
ria eta Ezkio-Itsasoko eta
Urola Garaiko alkateei
adierazi dienez, Gipuzkoa-
ri dagokion zatian, Bea-
sain-Durango autobideko
lanak atzeratu egin dira.
Era honetan, Ormaiztegitik
Bergarainokoa 2009. ur-
tean bukatuko da. Hasiera
batean 2000. urtean buka-
tzeak ziren. Dirua izan
da atzerapenaren arrazoia,
Urumeako autobideari eta
Etxegarateren bikoizketari
lehentasuna eman baitie
Diputazioak.

Beasain-Durango zatiko
lehenengo 5 kilometroak
bakarrik daude eginda, Be-
asaindik Ormaiztegiara bi-

tartekoak. Ormaiztegiko
zatia joan zen urrian inau-
guratu zen. Diputazioko
iturrien arabera, 2001. ur-
tean hasiko dira berriz ere
lanak, Bergarako hegoe-
kialdeko saihezbidea egite-
ko. 2003. urtean saihezbide
hori bukatu eta Zumarraga-
Ormaiztegi zatiarekin hasi-
ko dira.

Diputatuak emandako
datuen arabera, egunero
11.000 ibilgailu pasatzen
dira eginda dagoen Bea-
sain-Durango autobide za-
titik.

Atzerapen honek eragi-
ten dien herrietako alkate-
ek alegazioak aurkeztuko
dituzte atzerapen honen
aurrean.

BOTA BERTSOA



Jon Agirre

Irlanda

*Doinua: Itsaso hori
dago zatarra*

Gatazka bati bale esanez,
hitzegiteai tarte eginez,
sufirimendua alboratzean
desio dezue zinez. (ber)
Irlandaren zorionez,
ta erorien omenez,
arrazoi bideak babes.
Mundu guztia dago arretaz
jarrai zazue almenez,
pauso haundiak lor ditzazuen
pauso txikiak emanaz. (ber)

Gatazka latza gogorra omen
adibideak daude nabarmen,
Irlandan ere hitzegiteko
izan dute nahiko kemen. (ber)
Hara gauzak nola diren,
Euskadirentzat bederen,
irtenbidea lenbailen,
gure erronka garbi hautatu
beharra daukagu hemen,
burujabetza eskuratzeko
burutik egin baino len. (ber)

**Eusko Jaularitz-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Segurako HBk barianteari buruz gezurrak, manipulazioa eta abar

1.- Segurako herriak eta Goierri osoak jakin behar du, 1996. urtean aho batez Segurako Udalak onartu zuela Maduratik bariantea egitea. Orduan ere ingurugiro eta nekazal arazoak baziren baina dirudienez momentu hartan ez ziren garrantzizko arazoak Segurako HBrentzat.

2.- PTPko txostena ez da Eusko Jaurlaritza eta Diputazioko txostena, enpresa pribatu batena baizik eta berria ere ez da. Enpresa honek urtebete baino gehiago da aurkeztu ziguna txosten hori. Segurako HBkoak badirudi ez zirela enteratu eta orain San Joanetan kontu berri bat bezela aurkeztu dute.

3.- Segurako barianteari buruz txosten hortan esaten dutena eta onartu gabe dagoena, Eusko Jaurlaritzako eta Diputazioko teknikoek jakina da ez dutela onartzen. Segurako HBkoak esatea Eusko Jaurlaritza eta Diputazioko teknikoek aurka ditugula, herria manipulatzeko eta nahasteko gogoia besterik ez da. Triste xamarra Segurako herriari begira.

4.- Azkenik, esatea bariante honekin zigorra jartzen diogula herriari, komentario gabe. Biktimismoaren arrazoiak ahaztu itzazue eta etorri Udaletxera lanera mende, Seguraren onerako.

Segurako EA eta EAJ-PNV

Teleskopio, euskaldunak noski, Goierriko eskualdeko zenbait udaletxeren aginduz eta Goiekiren laguntzarekin

Duela egun batzuk GOIERRITARRA aldizkaria irekitzerakoan ustegabeko batekin topatu ginen hainbat eta hainbat goierritar, non eta "teleskopio erdaldunak Goiekiren eskutik" izenburuarekin Beasaingo Tomas Agirre Jaunak hutsegite baten berri ematen zigun.

Lehenik eta behin, eskerrik beroenak luzatu nahi dizut Tomas Agirre Jauna, behin eta berriro, Euskararekiko duzun eta bizi duzun ardura azaldu duzulako. Zuk salatu duzun hutsegitea dagoeneko konponduta dago.

Bigarrenik esan beharra daukat zuk salatutako hutsegiteaz jabetu gabe geundela eta, nere ustez, Goiekiko lankideok nahiz teleskopio hauek jarri dituzten udaletxetako arduradunak ere, guri behintzat ez digute horrelakorik adierazi.

Uste dut, Tomas Agirre Jauna, esan beharrik ere ez dagoela, ezagutzen gaituztenentzat bederen, 'Goieki' tik jorratu nahi den Turismo mota inolaz ere ez dela Goierriren izaeraren zapaltzaile. Zalantzarik izango bazenu, erregutuko nizuke Goierriko Turismo egitasmoa irakurtzea.

Dena den, Tomas Agirre Jauna, jakin jakin beharko zenuke Euskera zuk hainbat

maitatzen ahalegintzen gara, ni behintzat ahalegintzen naiz horretaz inortxori konturik eman beharrik ez dautkadalarik, zuri are eta gutxiago, eta 'Goieki' ren eta nere asmoa eta nahia inolaz ere ez dela Euskera galeraztea jakin ezazu. Aldizkarietara jo gabe, telefono deialdi soil batekin horrelako hutsegiteak konpondu daitezkeela uste dut eta zurekin hitzegiteko nahiz zure eritziak jasotzeko prest nauczula jakin ezazu.

Bukatzeko Tomas Agirre Jauna, barkatuko didazu gure arbasoek ez esana izatea baina neretzako guztiz balio garri jotzen dudana heinean ondorengo esaldi hau aintzat hartzea eskertuko nizuke. Ella Wheeler Wilcoxek aipaturikoa da: *"Gutiz latz den bidexarik ez da. Bila itzazu ingurune atsegin eta argitsuak eta beraietaz hitzegin iezaiozu penaren atsekabez nahiz eta pozik ez duen hilkor denaren bortizkeriak guztiz zauriturik eta nekaturik aurkitzen den lurraren belarriari"*.

*Juan Manuel Barandiaran
(Goiekiko Zuzendari orokorra)*

Irungo bandari protesta

Aurten, aurrekoaren burrunbaren ondoren, desberdintasun nabaria izan dugu Iruenen, emakumeak alardean

parte hartu dutelako.

Emakumeak Euskal Herria osatzen dugun herritarak gara eta hainbat herritarako txokoetan partaide zutenak gara, bai kirolean, kulturaren, jaietan, kalean eta beste hainbat lekutan, honek galdera bat dakarkigu burura, zergatik ez Alardean? Partehartze eskubidea ezin daiteke aldatu herritar batzuen nahien arabera, edo interes propio batzuegatik, eskubideak ezin daitezke jokoan jarri eta are gutxiago zapalduak izan "tradizio" eta antzeko aitzakiak erabiliz. Eskubideak lekuan lekuko egoeraren arabera onartuak eta gauzatuak izan behar dute.

Jakingo duzun bezala aurten ere urtero bezala Irungo banda etorriko zaigu Ordiziako jaietara, banda honek oihartzun handia izaten du geure artean, horregatik adierazpen batzuk zuengana helerazi beharrean aurkitzen gara.

Talde honek hainbat aldiz adierazi duen bezala, Alarde tradizionalaren alde dago, hau da, emakumeak alardean ateratzearen eskubidearen ukapenaren alde dago.

Hau ikusita emakumea berriz ere zapaldua dagoela ikus dezakegu. Honen aurrean ekintza txiki batzuk antolatuko ditugu, beraz, zuen elkartasuna eskatzen dizuegu. Adi egon, ekintza hauen informazioa kaleratzen dugunean.

Ordiziako Egizan

Argazkiak: Xabier Etxebarria

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa
fundación*

TXANDAKA


Olanok, aurten bai?

Aurten pixka bat gehiago itxaron behar izan badugu ere, gainean dugu berriro Tourra. Mundialarekin tokatu eta atzeratzea erabaki zuten antolatzaileek. Honela, lehen ere nahikoa artega ibiltzen baginen, noiz hasiko zain, orain are urduriago jarri gaituzte atzerapen honekin. Gainera, Olanok zer egin dezakeen geratzen da aurrekoari batzeko. Joan den urtean laugarren egin arren, frakasotzat hartu zen haren lana, eta zergatik? Indurain berri bat behar genuelako, beste guztiak menpean hartuko zituen idoloa. Idoloa ez ezik jainkoa esaten ere ausartuko nintzateke.

Guzti honek anoetarrarentzat presioa besterik ez du ekartzen, komunikabideek areagotzen duten presioa; izan ere, nor izan zen iazko urtean Olanok Tourra irabazi behar zuela esan zuena? Olano bera?, Banestoko kideak? Ez, komunikabideak baizik. Hauek izan ziren Olanoren lana frakaso bihurtu zutenak, ez beste inor. Honen antzeko zerbait gertatu da aurtengo Frantziako Mundialean. Bezperan Espainiako selekzioa onena zen, finalera sartu behar zuen... komunikabideen arabera. Zenbat aldiz entzun diozue Clementeri Mundialean denak aurrean erabili behar zituztenik? Nik behintzat... behin ere ez.

Lehengo urtean gauza bera gertatu zitzaion Olanori: aldarean jarri zuten komunikabideek esplikazioak eskatu zituztela gero: ea zergatik etzuen Tourra irabazi. Olanorena marketing kanpaina bat izan zen, Tour bat saldu ziguten irabazi aurretik. Horregatik, denontzat hobe izan dadin, zer eman duen bukaeran baloratu beharko genuke, ez lasterketa hasi aurretik festa antolatu. Festarik onenak, berez, bapatean ateratakoak dira, sorpresa bat direnean.

Bianditz Iraola



Ordiziako jaietan zer duzu gustukoena?



Asier Mujika

21 urte, ikaslea

aramarra

Ondo pasatzen dugu, baina ezer berezirik ez daukate. Kanpotik jende asko etortzen dela izaten da ona.

Mikel Mendizabal

42 urte, langilea

idiazabaldar Ordiziaratua

Politena koadrila eguna izaten da. Bertakoentzat danborradak esanahi handia dauka.



Joseba Basarte

21 urte, ikaslea

ordiziarra

Dena gustatzen zait. Gau onena 26koa izaten da, jende gutxienean orduantxe ibiltzen baita. Matutina ere ondo egoten da.

HERRIKOA TABERNA

Pintxo mundialak

Giro abertzalea

Elkano Kalea

ORDIZIA

EZKAILU
taberna_k

jai zoriontsuak opa dizkizue!

☎ 943 88 85 38

ORDIZIA

SIGLO XX

TABERNA

JATETXEA

Uztailaren 24tik abuztuaren 24ra oporregatik itxia. Festa onak pasa!

☎ 943 881096 Elkano, 6 ORDIZIA

Arantxa
lentzeria

Jai Zoriontsuak!

J. M. Barandiaran, 3

☎ 943 88 76 15

ORDIZIA

Jai zoriontsuak pasa ditzazuela!

HIDALGO
Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Legazpi Kalea, 3

943 88 04 06

ORDIZIA

Diseinua

Berrikuntzak

Kalitatea

Garantia

ZINEA

ORDIZIA:

'El gran Lebowski'.
Larunbata 18: 19:30 -
22:15; igandea 19: 19:30 -
22:15; astelehena 20:
19:30.

'Haur Lehoia' (Euska-
raz). Igandea 19: 16:45.

MUSIKA

GABIRIA:

Abuztuak 15, 'Etzakit'
23:00etan.

Abuztuak 16, 'Maixa eta
Ixar', 23:00etan.

Abuztuak 17, 'Joselu
Anaiak', 23:00etan.

ITSASONDO:

Abuztuak 14, 'Alaitz eta
Maider', 23:00etan.

Abuztuak 15, 'Benetan',
23:30ean.

Abuztuak 16, 'Triki-Tra-
ke', 23:00etan.

ORDIZIA:

Uztailak 25, 'Jazz eta Bo-
leroen gaua' Yerbabuena

EKAINEAN SALDUENAK


LIBURUAK:

- 1- Errolan harria
Patxi Zabaleta (Txalaparta)
- 2- Colegas
Pepe Rei (Txalaparta)
- 3- Gure barria 1975
Xabier Mendiguren (Elkarlanean)
- 4- Bernardo Atxagaren
irakurlea
Mari Jose Olaziregi (Erein)
- 5- Groelandiako lezioa
Bernardo Atxaga (Erein)

DISKOAK:

- 1- Kepa Junkera
'Bilbao 00:00h' (Resistencia)
- 2- Etzakit
'Etzakit' (Elkar)
- 3- Gozategi
'Kalanbreak' (Elkar)
- 4- Tapia eta Leturia
'1998' (Elkar)
- 5- Betagarri
'Arren erro zaharra'
(Mil a gritos)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda



Iues rothers
BEASAIN



iñAUSTi
KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 **OLABERRIA**



IBAI-ONDO

ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 943 88 05 43 **BEASAIN**

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI



OTATZA SAGARDOTEGIA

Uda garaian erretegi moduan ere
zabalik, terraza eta guzti
Zatoz probatzera!

Astegunetan eguerdietan itxita, astelehenetik
asteazkenera itxita, hauetan enkarguz irekitzen da.
☎ 943 80 17 57 **ZERAIN**

Jai zoriotsuak denontzat!



MUGICA 19

MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Jai zoriotsuak denontzat!

VOLVO
TOYOTA
ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ono etxea Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
ZALDIBIA **BEASAIN**

boskotearekin, Domingo
Unanue plazan, 22:30ean.

Uztailak 26, Irungo Udal
Muisa bandaren konzertua,
Plaza Nagusia, 13:00etan.

Uztailak 26, 'Maixa eta
Ixar', Beti Alai pilotale-
kuan, 23:30ean.

Uztailak 27, 'Drindots',
Beti Alai pilotalekuan,
23:30ean.

ZERAIN:

Abuztuak 15, 'Musu-
truk', 23:00etan.

Abuztuak 16, 'Kristina
eta Amaia', 23:00etan.

MENDI-IRTEERAK

Idizabalgo mendizaleak:

Uztailak 24-25-26: Port
d'Espagne-Vignemale.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain).

Uztailak 18-19: Urbizu (Kale Nagusia, 8- Beasain).

Uztailak 25-26: Jauregi (Santa Maria, 2-Ordizia).

Abuztuak 1-2: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18-Beasain).

Abuztuak 8-9: Lournaga (Kale Nagusia, 4-Ordizia).

Abuztuak 15-16: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain).

Abuztuak 22-23: Arriola (Plaza Nagusia-Ordizia).

Abuztuak 29-30: Urbizu (Kale Nagusia, 8-Beasain).

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Pertsona euskaldun
bat behar dugu Bilbon
ikasle-pisua osatzeko.
943-18 76 19. Ainhua.

Salerosketak:

☐ Olivetti Lettera 42
idazteko makina bat sal-
tzen da, egoera oso one-
an dago. 943-885292 te-
lefonora deitu 12:00eta-
tik 14:00etara eta Ones-
kirengatik galdetu.

☐ Erremolkea erosiko
nake, 1,5 - 2 metroko
kajarekin. 943-731960
telefonora deitu, 9etatik
10etara. Joseba.

☐ Diskoak, singelak eta
LPak erosten ditut. 943-
526577.

☐ Bi akumuladore sal-
gai. Bata, estatikoa, han-
dia, 2.000 batiokoa. Bes-
tea, dinamikoa, handia,
2.000 batiokoa. Egoera
onean. Prezio ona. 943-
733769. Mari Solengatik
galdetu.

Lana:

☐ Pertsona bat behar da
merendero bat eramate-
ko. 929 48 78 68.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarateko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27



BEASAIN



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g

☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 943 889390 BEASAIN



USURBE ZENTROA

• *Hernia diskala (Tratamendu ez kirurgikoa)*

• *Lunbagoa, ziatika*

• *Kirol lesioak*

• *Errehabilitazioa*

☎ 943 16 13 39

Andra Mari, 9-1.
BEASAIN

ARRIETA

*Jai zoriatsuak
opa dizkizuegu!*

JATETXEA

☎ 943 88 00 02

OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

UDA IKASTAROAK

IKASTEK AKADEMIA

KALITATEA eta PROFESIONALITASUNA

✓ IRAILEKO AZTERKETEN PRESTAKETA

☐ OHO, DBH, LOGSE, LH, BBB, UBI.

☐ Maila eta arlo guztiak

☐ Datorren ikasturterako prestaketa

✓ ESKOLA LAGUNTZA

☐ Banakako laguntza

☐ Lehen Hezkuntzatik aurrera

✓ UNIBERTSITATE MAILA

☐ Enpresaritza

☐ Ingeniaritza

☐ Kimika

Informazioa: ☎ 943 16 01 20

Joan Iturrlalde, 5 BEASAIN

Lasai hadi Rufino! "Arrazoa bere alde duenak, ez dik, moteil, lengoaje klase hori erabiltzen". Esaldi bikaina hire erantzunari alboan jartzeko. Oraingoan behintzat azaldu duk iraintze, ofenditze eta intsultatze kontuetan (hire hitzak dituk) txapeldun haizela. Hik dioanez, nire artikulua hortik omen zuena, hirearekin aski gaintitu duala esan behar. Errieta eta belarri-tiraizotik ere ongi hornituak gabiltzak aspaldian gai hauetan murgilduok eta bat gehiago hartzeagatik bizirik irautea itxaro diat. Hala ere, hireak, belarri-tiraizoaren baino behorren ostikoaren antz gehiago dik. Hori bai, zaldun legez, lehen bezain adiskide! Hala agintzen ditek arauak!

Hik dioanez, bidenabar idatzi nian herri-eskolei buruzko esaldi haren bidez, "herri-eskoletako guraso eta maisumaistra guztiak iraindu, ofenditu eta intsultatu" bide ditiat. Ba moteil, horretarako batere asmorik gabe egindako herri-eskolen bidenabarreko aipamen harrengatik, batere bila ibili gabe, herri-eskoletako guraso eta irakasle batzuen zorionak ere jaso ditiat. Guzti-guztiak behintzat ez dituk irainduak gertatu eta pozten nauk. Zer nahi duk ba esatea? Hiretzat iraina, ofentsa eta intsultua dena, beste batzuentzat egia zorrotza baino ez duk suertatu. Zer egingo zioagu ba...! Nonbait ez diagu pertsona berdinekin topo egin!

Herri txikietako Ikastolak (gogoan al duk Goierriko herri txiki ia denetan zirela?) Administrazioaren herri-eskola bihurtzeko prozesua, ez zekiat zehazki zein herritan hasi zen. Hik Zaldibian diok eta hala izango duk. Ongi joan zai-zuela diok eta pozten nauk horregatik. Bazagok halere hortik zehar urrutira joan gabe bestelakorik dioenik ere... Ni ez nauk horretan sartuko. Baina ni ez ninduan leku jakin bateko emaitza jakin batzuek ari ekainaren 19ko artikuluan. Hik hala hartu nahi izan baduk ere, ni, Administrazioak Ikastolak irensteko

Rufinoren egonezinari erantzuna

erabilitako bideez ari ninduan eta hori beste kontu bat duk.

Nik, gaurko ikuspegitik ikusita (hik eskubiderik ez dudala esan arren; noiztik bihurtu haiz inkisidore Rufino?) Administrazioak Ikastolak irensteko egingdako ahaleginak aipatu nizekian eta aipatuko dizkiat hire kontuak gorabehera. Hik, Zaldibian alderantziz gertatu zela diok. Ez zakizkiat garai hartako Zaldibiako xehetasunak, beraz, hala biz, inork aurkakorik ez zioken arte. Nik hala ere, oro har, argi eta garbi esango diat ikasleak Ikastolek jarri zituztela, orduko eskola publikoak (herri txikietako gehienak) ia ikasle gabe geldituak zirela, nahiz eta beti bezala, boterea, sistema, denon dirutik ateratako baliabideak eta irakasle ugari izan eta Ataun aldean esaten den moduan, "astoa zaldi truk" antzekoa izan zela tratu hura, D ereduan irakastearen truke (eta horrek ere izan ditik eta baditik bere gorabeherak; Zaldibian ez zakiat baina) gurasoen kudeaketa eta eskola-erabaki nagusiak administrazioaren esku utziz. Gainera, hura gauzatzeko, lekuan lekuko agente politiko askok eragin handia izan zian eragiketa hura ontzat emateko (geroagokoan ere izan ditek bezalaxe). Hik nonbait oso gustura esku hartu huen hartan eta harro hago, baina hartan partaide izandako bat baino gehiago bazagok damututa gaur egun Goierri. Zer nahi duk ba, hemen denetik zagok! Dena dela, hori bai, alferrik duk ura joan ondoren presa egiten ahalegintzea.

Goierriko herri gehienetan zituan Ikastolak eta ez D eredu soilik zutenak, kudeaketa ere gurasoen esku ziaten, ez

Administrazioaren esku. Gaur, hiru herri nagusienetan bakarrik zaudek eta dau-denak badakik nola geldituta. Ez harritu, luzaro gabe, gelditzen direnak Administrazioak irensteko beste planen bat asmatzea. Hik herri-eskolak Administrazioak hartzearen gertakaria, Ikastolen sorrerarekin berarekin konparatu duk. Euskal Herriaren Historian ordea, Ikastolen sorrerak leku handia dik eta izango dik (ideia gisa gure herriak sortutako handienetakoa baituk) eta besteak aldiz, izatekotan ere, irenketaren hasierarena izan beharko dik. Karlistaden ondongo konstituzionaltasunaren antzera ziur aski. Hi ziur aski poztu egingo hintzateke Ikastola guztiak Administrazioak irentsita, baina nik negar egingo nitek. Hori duk bion arteko aldea. Hik, Administrazioak kudeatutako ikastetxe-eredua defendatzen duk eta ongi joan dakiala. Nik aldiz, Euskal Herriko gurasoek beren seme-alabentzat asmatu, sortu eta Euskal Herri osoan zehar garatutako euskarazko ikastetxe-eredu autonomo, libre eta guraso-partaidetzaz kudeatua defendatzen diat kudeaketa-eredu moduan.

Niri eta nik bezala Ikastolen proiektua garatu eta iraunarazi nahi diagunoi, ez zaiguk burutik pasa ere egin beste ikastetxe batzuek irenstea eta suntsitzea. Aldiz, Administrazioak eta haren inguruan beti zer eskuratuko dabilen klase politikoko elementu askok, beti bere asmoen barruan ditek (hik ez?) Ikastolak (ez beste ikastetxe-mota batzuek egon badauden arren) irenstea. Hor zagok beste alde bat gure artean: beste batzuenan hatzamarra sartu nahi izatean ala ez izatean eta gainera, sartze-ko boterea izatean.

Horixe besterik ez duk Rufino! Horixe bezain soila eta alua aldi berean, horixe bezain mingotsa, mina, garratza eta batez ere larria Euskal Herriaren etorkizunerako.

Andoni Sarriegi (Beasain)



ondoeta

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

ERREZETA



Inaxi Aranburu
Aldasoro jatetxea
Ordizia

ISATSA

Osagaiak: (4 lagunentzat): 2 isats, 2 tipula handi, 2 piper berde, bi tomate gorri, azenario handi xamar bat, 6 bat baratxuri, basotxo bat ardo txuri, basotxo bat konak, oliba-olioa eta gatza.

Osagai guztiak gordinik jarri kazola batean. Isatsa eta tomateak pusketatan eginda. Su bajaran jarri, azpitik erre ez dadin. Denbora, bakoitzak ikus dezala, gustorekin eta isatsaren neurriaren arabera baitago hori. Nahi izanez gero, txanpinoiak eta patatak ere bota daitezke saltsan.



Mari Jose Alutiza

Jos & Bel ileapaindegia

Azken urte hauetan, ilearen munduan, nabarmena da kolorearen gorakada. Teknologiarekin aurrerapena ikusita gainera, kalitate ezin hobeagokoak dira ia gehienak.

Kolorea ematera koan kontuan eduki behar da lehenengo aldiz den ala ez. Horrela balitz, proba bat egin beharra dago aurretik buruazalean; eta 48 ordu itxoin ondoren gorritasunik edo erreminurik ez bada azaltzen, lasai eman

AHOLKUA

Ileko kolorearen zainketa

liteke.


Kolore karta ere oso zabala eskaintzen da. Ile-hori edo rubio argienetik beltzenarakoa, eta tonu bakoitzak lau edo bost matiz ezberdinekin. Nabarmena da azken bolaran jendea geroz eta gehiago ausartzen dela irudi aldaketak egitera, eta horretarako koloreak garrantzia handia dauka.

Lan hauek oso teknikoak direnez, profesionalen

eskuetan egitea komeni da, ondorio onenak lortzeko. Kolorea emateaz aparte, bakoitzak etxean edo ileapaindegian ere zaindu beharko genuke. Sarri gertatzen da, eta udan gehiago, garbitzerakoan edo eguzkiaren eraginez kolorea eta matiza galtzea edo maskaltzea. Horretarako, ura ahalik eta hotzenarekin eta txanpu egokienarekin garbitzea gomendatzen da, ondoren krema edo maskarilak on egiten dio. Uda garai honetarako eguzkiaren babesleak dira gomendagarrienak. Nahiz eta tratamendu egokia eman, udazkenean ilea erori egiten da; % 80 hozberoaren aldaketatik izaten da. Zuztarra egoera onean bada, normalean ondo indarberritzen da, tratamendu eta masajearen laguntzarekin lehenago.



Autowag, s.a.



Golf berria!

☎ 943 88 82 54 / 62 / 66

N-1 errepeidea, 419 Km

BEASAIN

EZKURRA ATEAK

Ateen ezartze eta salmenta
Tarimak
Armairu enpotratuak



☎ 943 16 07 50 Faxe: 943 88 09 13
Domingo Unanue, 2 **ORDIZIA**

URBITARTE

sagardotegia



Erreserba telefonoa
943 18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN

Arkupe

tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Malndireak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza

☎ 943 88 00 84 **ORDIZIA**



Goierrri, 15 ☎ 943 88 17 08 **ORDIZIA**



CAFeko langileak protestan, lan hitzarmenaren alde

Uztailaren 8an, CAFeko langileek manifestazioa egin zuten Ordiziara bitartean, ELA, LAB, ESK-CUIS eta CCOO sindikatuak deituta. Enpresako lan hitzarmenaren negoziaketak blokeatuta daudela salatzeke egin zuten protesta. Mobilizazio gehiago egiteko asmoa ere badute. Horrela, uztailaren 21ean, beste protestaldi bat egingo dute.

Oporrak

GOIERRITARRA aldizkari-ko langileek oporrak hartuko ditugu uztailaren 24tik

abuztuaren 24ra bitartean. Irailaren 4an argitaratuko dugu hurrengo alea. Ondo ibili bitartean!



Mikel Zabaleta

Uztailaren 4an Gazte Abertzaleak Gabirian egin zuen Lurralde Batzarrean Gipuzkoako batzorde berria hautatu zuten. Mikel Zabaleta zegamarra izendatu zuten Argiltapen eta Propaganda idazkari. Argazkian, batzordeko kideak.

Joan Mari Insausti

Frantziako Fresneseko kartzelan dagoen Joan Mari Insausti epaitu zuten Parisen, ekainaren 29an. 10 urteko kartzela zigorra eskatu zuten beasaindarrarentzat. Gaizkile elkarteko kide izatea, eta armak eta dokumentu faltsuak edukitzea leporatu diote.

Ignacio Gutierrez

Uztailaren 5eko goizaldean, Ordizian izan zen auto istripuan hil zen Beasaingo 24 urteko Ignacio Gutierrez Alvarez. Autoa Oria ibaira erori zen. Istripu berean beste bi gazte olaberritar ere zaurituak izan ziren.



"Ekogarbi ilargia bezain garbi"

☎ 943 16 02 23 - 970 95 00 88
Atxisain baserria IDIAZABAL

Garbiketa eta mantentze zerbitzuak

SERIOSASUNA,
KONFIDANTZA,
PROFESIONALITASUNA



Alpe

MASTER

Elektragaiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



MUJIKA



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

Astialdiko begirale ikastaroa Zegaman

Zegamako Udalak Goiekirekin elkarlanean, eta Goierriko beste herri batzuetan antolatutako ikastaroekin batera, Astialdiko begirale izateko ikastaroa antolatu du 1998-99 ikasturterako. Ikastaro hau haur eta gaztetxoek astialdi antolaketara zuzendurik joaten da, udaleku eta antzeko inguruetan lana egiteko aukerak zabaltzen dituelarik. Ikastaroa Eziko Eskolak emango du. Honek eskaintzen duen aukerak Eusko Jaurlaritzaren baldintzak betetzen ditu. Ikastaroa urritik maiatzera bitartean emango da, beti ere azterketa garaia errespetatuz eta astebukaerei helduaz. Ikastaroan beharrezkotzat jotzen diren gaiez aparte, Goierri inguruneke ezaugarriak buruzko arloak ere landuko dira. 18 urte gorakoentzat ikastaroa. Irailean informazio gehiago izango duzu epe eta izen emateaz.

Irati Goikoetxea

Bertso-paperetan, 16 urte bitarteko mailan, bi sari lortu berriak ditu Irati Goikoetxea beasaindarrak. Bata, Azkoitin, Xabier Munibe lehiaketan, 'Edurne Zuri' lanarekin; eta bestea, Oiarzunen, Manuel Lekuona sariketan, 'Barbantxo' bertso sortarekin.

Luis Garmendia eta Egoitz Sukia

Segurarrak eta ataundarrak Eibar futbol taldearekin fitxatu dute. Garmendiak Azken bi denboraldiak Ceutan egin ditu. Sukia Beasain taldearen goleatzaile nagusia izan zen joan zen denboraldian. Aurten 2.A mailarako jauzia egin dute biek.

Juanito Rubioren marka

Orain dela 31 urte Juanito Rubio sukaldari ordiziarrak, Larraitz-San Migel-Larraitz ibilbidea 4 ordu, 47 minutu eta 3 segunduan burutu zuen korrika. Uztailaren

4an, 52 urterekin, bere marka hautsi du: 3 ordu eta 50 minutu behar izan zituen ibilbidea burutzeko. Legorretako Iñaki Esnaola eta Ordiziako Mitxel Cuadrado korrikalariak lagun izan zituen



Beasaino La Salle-San Jose ikastetxeko mutil infantilek, Donostiako Askatuak saskibaloitxapelketa irabazi zuten. Hauek dira taldea osatzen dutenak: Iñigo Iraola (entrenatzailea), Iker Saldias, David Camarero, Jose Manuel Nieto, Imanol Campos, Gorka Dorronsoro, Urtzi Gurrutxaga, Ioseba Arizkorreta eta Lander Murua.

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta astelehenetik ostiralera, 12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

☎ 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:

☎ 943 88 03 15

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN



MARIAN LARREA
BARNE DEKORAZIOA

- ✗ ERREFORMAK
- ✗ PROIEKTUAK
- ✗ ESZENOGRAFIA

☎ 943 88 58 48 - 943 46 34 79
Oriamendi, 30 BEASAIN

AITOR FURUNDARENA ORDIZIAR AKORDEOILARIAREKIN BERRIKETAN: "Musikariak jendearekin bat egiten saiatu behar du, ez musika jotzen bakarrik"

Aitor Furundarenak 28 urte ditu. 11 urterekin hasi zen solfeoa eta 12rekin akordeoia. Musikari gustoa hartu eta 17 urterekin garbi zeukan musikatik bizi nahi zuela. 20 urterekin Parisa joan zen.

Lehenengo musika ikasketak Ordizian egin zituen. Akordeoiko irakasleak Rosario Balerdi eta Garbiñe Balerdi izan ziren. Akordeoiaz gain, konposizioa ere jorrazten du. Parisen 3 urte egin zituen. Kopenhagen beste urtebete. Euskal Herrira itzuli eta lehen diskoa kaleratu zuen, musika klasikoan oinarritua. Furundaren izenean, berriz, beste bi disko atera ditu, herri musika arloan. Azkena, 'Juanita'.

- Akordeoia jotzen ikasteko atzerriara joan behar al da?

- Ez. Hemen badago behar adinako maila. Hemen ondo jotzen duen norbait eta Errusian ondo jotzen duena ez da bat bestea baino hobea. Esti-



lo kontua da. Eskola ezberdinak daude eta bakoitzak bere estiloa lantzen du. Frantziar adibidez, estilo orokor bat badago. Eta Euskal Herrian ere egin da eskolatxo bat klasiakorako.

- Txikitik oso lotsatia eta itxia omen zinen. Musikak jendearekin erlazionatzen lagundu al dizu?

- Nire buruarekin dextenteko konfidantza hartu nuen akordeoia joz. Gauza bat ondo egiten denaren sensazioa dagoenean, norbere buruarekin segurtasuna hartzen da. Nahi ez nuelako ez nintzen jendearekin erlazionatzen, beldurra nuen. Nire buruarekin se-

guridadea hartu nuenean lasaiago nengoen jendearekin erlazionatzeko. Akordeoian beti herri musika landu izan dut. Betidanik jo eta abestu izan dut afarietan eta horrek batzutan protagonista bihurtzen zaitu. Horrek seguridade handia eman zidan.

- 'Zenbat aldatu zara' esaten al dizute?

- Trikitilari jaialdi batean famatu egin zen pupurri bat jo nuen. Ikastolatik ni ikusi gabe zegoen jendeak izugarriko sorpresa eraman zuen. Ikastolako irakasleek orain telebistan ikusten nautenean harrituta gelditzen dira, jarrerara aldetik egin dudana alda-

ketagatik.

- Musika estilo ezberdinak jotzen dituzu: klasikoa eta herri musika.

- Momentuz klasikoa erabat baztertuta daukat. Klasikoa iritsi da iritsi behar zen lekura. Herri musikan gehiago dago lantzeko. Klasikoan Euskadiko Orkestak egin behar duena egin behar bada, nahiago dut askoz ere herri musikan egin litekeen lana. Esate baterako, Euskadiko Orkestra museo bat da, egiten duten musika orain dela urte askotako musika delako. Museo batean hainbeste milioi inbertitzekotan, nik uste Euskal Herrian gehiago me-rezi duela, adibidez San Telmo museoan, inbertitzea, bertako gauzetan inbertitzea. Eta akordeoian ere berdin-berdin.

- Musika klasikoak zein zentzutan jo du gailurra?

- Musika aldetik. Kontzertu batean komunikazioa jarri behar da lehendabizi. Pajarita janztea da lehenengo akatsa. Herritarrekiko muga bat jartzea da pajarita janztea.

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Jai zoriontsuak denoi!

Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 ORDIZIA



INPRIMATEGIA
URDANETA

KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ

Urdaneta, 26 ☎ 943 88 04 46 Faxe: 943 16 14 07 ORDIZIA

MAIZTEGI ARMATEGIA

Ehizerako eta arrantzarako tresnak

Jai zoriontsuak denoi!

Urdaneta, 21

☎ 943 88 13 15

ORDIZIA

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta

☎ 943 88 72 76

Bestetik, oso pieza zailak jotzen dira, jendea inongo erreferentziarik eman gabe. Oso eroso da jendeak musika ez duela ulertzen esatea. Kontzertuak egoera horretan emanez gero, lagundu beharrean, ulertzeko trabak jartzen dira. Jendeak ez du musika kultura edukiko baina interpretean ere akats handia dago. Gertuago sentiarazteko gauzak egin behar dira. Iruimen piska bat besterik ez da behar jendearekin harremanetan jartzeko.

- Herri musikarekin komunikazioa lortu al da?

- Bai. Baina herri musikan gauzak gehiago landu behar dira. Hutsune handiagoak ikusten ditut musika aldetik, klasikoan baino. Hori betetzera nator ni. Akordeoiak esaterako, azken urteetan klasikoa bakarrik landu du, herri musikarik batere ez. Herri musika trikitrixak landu du. Akordeoiaren lekua erreibindikatu nahi dut, ez trikitrixaren aurka.

- Akordeoiaren eta trikitrixaren artean konpetentzia al dago?

- Alderantziz. Euskal Herrian gehiegi dago mentalitate hori. Munduko leku askotan ez dute ezberdintzen. Ia



ia instrumentu berak dira. Bi instrumentu hauek mundu guztian jotzen dira. Egia da leku askotan akordeoiarekin jo izan den musika herrikoia norabide batean joan dela eta trikitrixarena beste batean. Egia da batzuetan akordeoiarekin serioxeago jo izan dela eta trikitriarekin arruntagoa. Baina horrek ez dauka zertan horrela izanik. Garai bateko erromerietan soinu handiaren eta txikiaren jo izan da. Kaxiano, Gelatxo... hor dauke. Azken 15 bat urtean akordeoiak gehiago jorratu du klasikoa. Trikitrixa momentu onean dago eta musika herrikoia baloratzeko era bat da.

- Showa, ikuskizuna egiten duzu emanaldietan.

- Hori nahiko gauza naturala izan da. Inprobisazioa izaten da gure jarrera, baita musika bera ere. Guk publikoarekin kontaktatzea nahi izaten dugu. Saiatzen gara gure kont-

zertuak umoretsuak eta dantzagarriak izaten. Baina hasieratik bukaeraraino ondo eginga, jendearen arreta erakarrita eta ahal bada parte hartze batekin.

- Lortzen al da?

- Egia da gero eta dantza gutxiago egiten dela. Baina era berean musikoon artean nahi bat, intentzio bat eta ahalegin bat falta da jendearekin konektatzeko. Musika jotzera bakarrik igotzen da zenbait eszenatokira. Baina jendeak joera gutxiago baldin badauka dantza egiteko, musikariaren jarrera hor egotea baldin bada eta ez bada saiatzen publikoarekin harremanak lortzen, erraza da nahiko kontzertu hotza izatea.

- Azkeneko lana, 'Juanita', nolakoa da?

- Oso-oso disko umoretsua da. Badirudi gauza bat umoretsua egiten bada, musikalki txapuz bat dela. Eta izan liteke musikalki izugarrizko mailakoa eta oso-oso umoretsua. Badirudi maila onekoa izateko gauza serioa egin behar dela. 'Juanita' alde batetik, disko ganberro eta umoretsua da, eta aldi berean musikalki landua. Abestien letrak batzuk nireak dira eta besteak, Harkaitz Cano, Pa-

ko Aristi, Garikoitz Berasaluze eta Igor Eguren ordiziarrenak. Kantu bat filandieraz kantatzen dugu.

- Musikatik bizi al daiteke?

- Erraza ez da, baina posible da. Gogorra da alde askotatik. Batetik ordu asko sartu behar dira. Baina niretzat gogorrena da, lan normal bat daukazunean, badakizula zenbat diru irabazi behar duzun hilabeteen. Gure lanean ez da jakiten.

- Zer moduzko esperientzia izan da telebistakoa?

- Oso ona. Ikusiko dugu datorren urtean jarraituko dugun ala ez. Gauza asko ikasi ditut. Orain trikitrixari buruzko dokumental baten grabazioan ari naiz, aurkezle lanean.

- Zein gauza on eta txar ekarri dizkizu telebistak?

- Onak: telebistaren mundua nolakoa den ikusi dut piska bat; jendeak orain gehiago ezagutzen nau; aktore lana landu dut; Ixiarrek eta biok izan dugun lanerako giroa ere oso ona izan da. Txarrak: beste jende bat ezagutzen duzu, denetariko jendea baitago; eta zurekasa sekula egingo ez zenituzkeen lanak egin behar izaten direla.

ARANTXA

taberna

**PINTXO ETA
OGITARTEKO
BEREZIAK**

☎ 943 88 72 46
Ordizia Kalea, z/g
ORDIZIA

JM

SUKALDEAK

Euskal Herria Kalea
ORDIZIA
☎ 943 16 06 58



kontsulta eskatu

*Sukaldeak berritu edo muntatu behar baduzu,
prezio ezin hobea egingo dizugu*

Venezuelan hil zen Carlos Cuadradori omenaldia eskainiko diote Ordiziako hainbat taldek

Uztailaren 26an, igandea, Arboledan, txoznen gunean, Carlos Cuadrado zenari omenaldia eskainiko diote, Askapenak, Txozna batzordeak, Komite Internazionalistak, Balakataklin taldeak, bere koadrilako lagunek eta CAFeko LAB sindikatukoek.

Carlos Cuadrado Venezuelako Andeetan hil zen. Iazko abuztuaren 20an desagertu zen, Pico Bolivar igotzera abiatu zenean. 5.000 metroko mendia da Bolivar. Bilaketa lanek luze jo zuten, Venezuela eta Ordiziatik joandako lagunen



Carlos Cuadrado Ordiziako talde askotan zegoen sartuta eta guztiek elkarrekin, omenaldia eskaini nahi izan diote Santa Ana jai hauetan. Txoznetako gunean, uztailaren 26an, izango den Internazionalista eguna aprobetxatuz.

aldetik. Azkenik, aurtengo maiatzaren 5ean aurkitu zuten ordiziarraren gorpua.

Ordiziako jai hauetan, herriko hainbat taldek omenaldia eskaini nahi izan diote Carlosi. Uztailaren 26ra-

ko antolatu dute, txoznen gunean, arratsaldeko 6etatik gauerdia arte.

'Ché'-ren erakusketa egongo da ikusgai, arratsaldeko 6etatik aurrera. 7etan, herri-krosa izango da. 9etan

ekingo zaio omenaldi ekitaldiari. Komunikatu bat irakurriko dute lehenengo. Minutuko ixilunea egin ondoren, lore eskaintza, bideo erakustaldia, txalapartariak, aureskua eta bertsolariak izango dira. 10etan, kontzertua izango da, kantaurre kubatar baten eskutik. Diapositiba emanaldiak lagunduko du kontzertua.

Arratsalde guztian zehar, kubatar edariak dastatzeko aukera izango da txoznetan.

Gaztelun oroigarria

Uztailaren 4an, beste omenaldi bat eskaini zitzaion Carlos Cuadradori. Gaztelu mendian, plaka bat eta monolito bat jarri ziren bere oroimenez. 40 bat lagun elkartu ziren Gazteluko ekitaldi honetan.



**ORDIZIA
BIDEO
KLUBA**

☎ 943 88 79 19

Domingo Unanue, 1 ORDIZIA



AZURMENDI

Harategi - Urdaitegia

Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 ORDIZIA

San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN



Umeen arropa denda

FESTETAN ONDO IBILI
ETA OPORRAK ONDO PASA!

☎ 943 16 12 39
Santa Maria, 13
ORDIZIA



**ORDIZIAN
eta
BEASAINEN**

- Etxebizitzak
- Apartamentuak
- Lokal komertzialak
- Garajeak

GOI-ETXE S.A.

Filipineta, 13 - behea ☎ 943 88 49 50 ORDIZIA



GOIERRI, S. L.

Iturgintza

Urdaneta 24 ☎ 943 88 11 57 ORDIZIA

Sanitarioen instalazioa
Iturriak

Bainuko altzariak
Berogailu eta Gasa

*Festa zoriontsuak
opa dizkizuegu denoiz*



... zure esku dago

"Buelbaka - Buelbaka Birziklatuz"

Datozen hilabeteetan honelako 210 edukinontzi jarriko ditugu Goierri eta Urola Garaia eskualdeetan. Sar itzazu bertan plastikozko eta metalezko ontziak eta Tetra Brikak, ondoren sailkatu eta birziklatu ahal izateko.

Gutxitu hondakinak,
berriz erabili eta birzikla itzazu

Guztion mesedetan izango da



Gipuzkoako Foru Aldundia

Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentua



SASIETA
MANKOMUNITATEA



Santa Ana jaia Ordizian

Uztailak 18, larunbata: 'Txikien koadrila eguna'

10:00etan: Neska-mutiko-entzatzat gimkana J. M. Barandiaran plazan, OKE-Zikloturismo sailak antolatuta.

10:00etan: Gipuzkoako Udako igeriketa txapelketa, Majori Kiroldegian, goizez eta arratsalde.

12:00etan: Suziri eta bonben jaurtiketa.

Ondoren: Buruhandi eta Erraldioen alardea.

16:00etan: Txirrindu lasterketa, 2. urteko kadeteentzatzat.

16:15ean: Koadrila txikien arteko herri-kirolak, J. M. Barandiaran plazan.

18:00etan: Buruhandi eta Erraldoiak Ordiziako txistulariekin. Udaletxetik Txikien koadrilak irtengo dira.

19:00etan: Haur animazioa Plaza Nagusian.

20:00etan: Beti Argi banda-



rekin koadrilen kalejira.

22:30ean: Arboledan suzko zezena.

23:00etan: Haurren mozorro dantzaldia, Beti Argi bandarekin, Beti Alai pilotalekuan.

Uztailak 19, igandea:

9:00etan: Goizeresia Ordiziako txistulariekin.

10:00etan: Gipuzkoako Udako igeriketa txapelketa,

Majori kiroldegian.

10:45ean: Alkate jaun-andreei harrera udaletxean.

11:00etan: Meza. Ondoren, Danborrero eta Upeltxo taldea, Beti Argi bandaren laguntzaz, Ordiziako Martxa joko dute.

12:00etan: Haurren ohiko aurrekua, Plaza Nagusian.

12:30ean: XIII. Ortzadar Argazki lehiaketaren sari-banaketa.

16:30ean: 'Rodamientos Iru' pilota torneoaren finalak, Beti Alai pilotalekuan.

16:45ean: 'Haur lehoia' filmea, euskaraz, Herri Antzokian. Sarrera dohainik.

20:00etan: Haurren danborrada Bustuntzatik abiatuta.

Uztailak 24, ostirala:

12:00etan: Txupinazoa.

12:15ean: Buruhandi eta Erraldioen alardea, txistuz eta trikitixaz lagundurik.

16:30etik 19:30era: Koadrilen arteko karts, motoak eta belozipeden txapelketa, J.M. Barandiaran plazan.

18:00etan: Buruhandi eta Erraldioen irteera Ordiziako txistulariekin batera.

21:30ean: Danborrada.

Ondoren: 'Koxkola' txaranga, alde zaharrean.

23:30ean: Boxeo jaialdia, Beti Alai pilotalekuan.

Kiska
PUB

Santa Maria

ORDIZIA



Jai
zoriontsuak
denoi!
Opilak
Kafeak
Freskagarriak

© 943 88 90 98

Domingo Unanue, 5 ORDIZIA

ALDASORO

Taberna - Jatetxea

Festa onak pasa!

Urdaneta, 27 ☎ 943 88 00 23 - 943 88 11 40 ORDIZIA



JOS & BEL
ILEAPAINDEGIA

- Azken teknika eta nobedadeak
- Tratamendu bereziak: eguzkitarako, ile erorketa, e.a.

Urdaneta, 15

© 943 88 82 52

ORDIZIA

Presio altuko
solariuma

sugar
PUB



Festa onak pasa!

Elkano, 11
ORDIZIA

24:00etan: Alde zaharrear, 'Correfoc' ikuskizuna, Premia de Mar 'Simplement Diables' taldearen eskutik.

Uztailak 25, larunbata:

7:30ean: Laguntasuna Errondailaren goizeresia.

9:00etan: LXXV. Villafranca Txirrindulari proba.

13:15ean: Laguntasuna Errondailaren kontzertua, Plaza Nagusian.

13:30ean: Txirrindulari probaren amaiera.

18:00etan: Kale animazioa haurrentzat, alde zaharrear eta Urdaneta kalean.

16:30ean: Larruzko pilotaz pala partiduak, Beti Alai pilotalekuan.

19:00etan: 'Koxkola' txaranga.

21:00etan: Beti Argi bandarekin kalejira.

22:30ean: 'Jazz eta Boleroen gaua' Yerbabuenaarekin, Domingo Unanue plazan.



23:30etik goizaldera arte: 'Clamores Orkestra' eta 'Koxkola' txaranga, Plaza Nagusian.

24:00etatik 5:00ak arte: Sakanako taldearekin, mozo-
ro dantzaldia, Beti Alai pilotalekuan.

Uztailak 26, igandea:

6:00etan: Goizaldeko dantborrada.

Ondoren: Txokolate jana Arboledan.

8:30ean: Ordiziako txistulariek eta trikitixak alaituriko goizeresia.

9:00etan: Irungo Udal Musika bandaren kalejira.

11:00etan: Meza. Udalbatzarra bertan izango da, Santa Ana abesbatzarekin.

12:15ean: Agintarien sokadantza, Plaza Nagusian.

13:00etan: Irungo Udal Musika bandaren kontzertua, Plaza Nagusian.

18:00etan: Profesionalen arteko pilota partiduak, Beti Alai pilotalekuan.

19:00etan: Beasain, Tolosa, Urretxu, Legazpi, Altsasu, Agurain, Etxarri eta Ordiziako Erraldoien konzentrazioa, alde zaharrear eta Urdaneta kalean.

19:00etan: Kalejira Beti Argi bandarekin.

22:30ean: Dantza Folklorikoan jaialdia Domingo Unanue plazan.

nue plazan.

23:30ean: 'Iruña Band Orquesta' eta 'Kalejira' txaranga alaituriko dantzaldia, Plaza Nagusian.

23:30ean: 'Maixa eta Ixiar' taldearekin dantzaldia Beti Alai pilotalekuan.

Uztailak 27, astelehena:

9:00etan: Ordiziako Txistularien eta trikitilarien goizeresia.

11:00etan: Parrokian Santanazaleen meza.

12:00etan: Santanazaleen ohiko esku-dantza, Plaza Nagusian.

12:30ean: Koadrilen irteera.

21:00etan: Kalejira Beti Argi bandarekin.

23:30ean: 'Welcome Orquesta' eta 'Kalejira' txarangaarekin, ezkonduen eguneko dantzaldia, Plaza Nagusian.

23:30ean: Dantzaldia 'Drindots' taldearekin, Beti Alai pilotalekuan.

LEIZEA



TABERNA

LIRAIN

PUB

Festa onak pasa!

Etxezarreta, 5

ORDIZIA

AMONANE



Nagusia, 30

ORDIZIA

SARRI

Tabernak

festa zoriontsuak opa dizkizue



Etxezarreta K.

ORDIZIA



Pottoka

KAFETEGIA

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

● Pintxo hotz eta beroak

● Ogitaratekoak

Jai zoriontsuak denoi!



ZABALE

OKINDEGIA

Dietetika

Jai zoriontsuak denoi!

- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa Maria, 8
943 88 12 11
ORDIZIA



MULTIOPTICAS



EGUZKITARAKO
betaurrekoak
3.500 pta-tik



EGUZKITARAKO
betaurreko graduatuak
8.500 pta-tik



KILLER LOOP



Ray-Ban

RÉVO



Etia ordaintzeko ordutan, abentaila ugari:
• MULTIOPTICASen kreditu-txartela. Diru berik erosteko modurik errazena.
• Ordaintze 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, baliere emakargu bari.



LORTU EZAZU
MULTIOPTICAS-en
TRAVEL CLUB -
PROGRAMAKO
PUNTUAK

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16
Tel. 943 76 15 75
20570 BERGARA

Juan Carlos Guerra, 1
Tel. 943 79 29 95
20500 ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
20240 ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2
Tel. 943 20 05 22
20600 EIBAR

MULTIOPTICAS ERRETERIA

Pl. de La Esmaltería, 7
Tel. 943 51 78 11
20100 ERRETERIA

VENTANAS SAN MIGUEL

Mendeurren etorbidea, 2
(Sarrera Nafarroa etorbidetik)
Tl. 88 91 53 Beasain

*Zure ongizatea
babesteko gande*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

Ordiziako Antzerki taldearen eskutik, 'Romeo eta Julieta'

Gaur, uztailak 17, Ordiziako Antzerki taldeak W. Shakespeare-ren 'Romeo eta Julieta' lana aurkeztuko du herritarren aurrean. Gaueko 10etan izango da, Herri Antzokian, urte guztian zehar egindako lanaren fruitua ikusteko aukera.



'Romeo eta Julieta' lana antzeztuko duten aktoreak hauek dira: Amaia Apaolaza, Capuleto anderea; Iñigo Balardi, Benvolio; Maider Bartolome, Sor Lorenza; Mari Sol Caverro, Julieta; Martin Etxeberria, Printzipia; Garikoitz Lariz, Romeo; Gorka Lariz, Mercuccio; Arrate Leunda, Aña; eta Xabier Urkia, Tebaldo. Rosa Rojo da zuzendaria. Jantziak eta dekoratuak taldekideek egin dituzte.

Txoznetako egitaraua

- **Uztailak 18, larunbata:** 20:00etan, bertso-saioa. 22:00etan, manifestazio-parodia, AHT-rik ez lemapen.
- **Uztailak 19, igandea:** 18:00etan, ume ikuskizuna; 22:00etan, Joxe Ripiau eta Sein-en kontzertua.
- **Uztailak 24, ostirala:** (Preso, errefexiatu eta deportatuen eguna): Eguerdian, kalejira. Ondoren, bazkaria. 19:00etan, omenaldia preso eta errefuxiatuei.
- **Uztailak 25, larunbata:** 12:00etan, kale-ikuskizuna. Arratsaldean zehar, taldeen erakusketak. Gauean, herriko taldeekin kontzertua.
- **Uztailak 26, igandea:** Carlos Cuadradori omenaldia. (Ikus 14. orria).

Gaztetxeko egitaraua

- **Uztailak 17, ostirala:** 18:00etan, igel jokoa. 19:30ean, jokoak. 22:00etan, pelikula.
- **Uztailak 18, larunbata:** 16:00etan, futbol txapelketa. 18:00etan, porra jaurtiketa. 24:00etan, txiste lehiaketa.
- **Uztailak 19, igandea:** Barrena jauregiaren aurrean festa: malabarak, erakusketak, trikitilariak eta pintxoak.
- **Uztailak 24, ostirala:** 11:30ean, txupinazoa Gaztetxean. 22:00etan, bertso-afaria.
- **Uztailak 26, igandea:** 8:00etan, gosaria. 22:00etan, antzerkia.

Jai zoriontsuak denoi!

GOZOGINTZA

PAGOSA

OKINDEGIA

☎ 943 88 55 00 **ORDIZIA**

MIAMI

kafetegia

Etxezarreta kalea
ORDIZIA

T A A
M O A
Y E O

FERNANDO ARANA LEKUONA

Jai zoriontsuak guztioi!

Amerika, 2 ☎ 943 88 89 80
ORDIZIA

Fandango

✕ Musika tresnak
✕ Megafonia
✕ Baxu eta gitarra klaseak

Jai zoriontsuak denoi!

☎ 943 16 10 73

Domingo Unanue, 2 **ORDIZIA**

KOIOTE KOIOTE

pub

Jai zoriontsuak

Zaldizurreta Kalea
BERSAIN

Etxezarreta kalea
ORDIZIA

HERRI BATASUNA

Ordiziar eta bisitari guztioi jai zoriontsuak opa dizkizuegu

ORDIZIA

ALAIA

Taberna
Kafetegia

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu denoi

Urdaneta, 2 **ORDIZIA**

Jai zoriontsuak denoi!

Arantxa

ILEAPAINDEGIA

Urdaneta, 42 - behea
☎ 943 88 19 50 **ORDIZIA**

ORDIZIA

San Fermin zozketaren errekor berria

54.000 boleto saltzea lortu dute aurten San Fermin Zozketako antolatzaileek. Iaz 100.000 izan baziren ere, kontutan hartuta txarteltxo bakoitzaren salneurria bikoiztu dela, diru-bilketan errekor berria ezarri da. Gustora egon daitezke, beraz, San Jose Zaharren Egoitzakoak, jasotako diruaren %10a beraientzat izango baita.

Herrian hain tradizio handikoa den zozketa honek bigarren urtea bete du aurten Txindoki tabernan. Dagoeneko jakingo duzue, ez galzorian egon zen beraz, inork ez baitzuen Eguzki tabernak utzitako ardura hau hartu nahi. Jesus Mari Altunak erronka hau bere gain hartu eta ezin hobeto bete du lana azken bi urteotan.

Zozketa San Fermin egun berean egin zen aipatu tabernan eta bertan jende gehiegirik egon ez bazen ere, giro onean burutu zen ekitaldia. Zenbaki sarituak Txindoki tabernan bertan ipinita daude, paretetan ezarritako paneletan. Kontutan izan 150.000 pta.ko lehen sariaz gain beste asko ere badaudela eta abuztuak 7a baino lehen jaso beharko direla.

Euskara kalean

Ordizian euskararen erabilerakalean zenbaiterainokoa den jakiteko asmoz Hitzaro Euskara Elkarteak egin berri du kale neurketa. Honen arabera neurketa egiterako garaian 5.006 pertsonatik %39a euskaraz ari zen eta %61a gazteleraz. Adin taldeak kontutan hartuz, esan haurrak eta gazte-

ak direla euskara gehiago erabili dutenak neurketa egiterako garaian eta diferentzia nabarmenaz gainera. Helduen %80ak, ordea gaztelera hutsa erabili ohi du bere ihardueratarako.

Gaztaren museoa

Iñaki Txueka diputatuak aurrreratu duenez, Ordizian kokatuko da gastearen museoa. Domingo Unanueren jaiotetxean, Barrena jauregiaren ondoko etxean, hain zuzen ere.

Tximista txapeldun

XIX. Lagunarteko Futbol Txapelketak uztailaren 5ean izan zuen amaiera. Egundorretan jokatu zen final handian, iazko txapeldun berberak izan ziren nagusi, Tximista Sagardotegiko mutilak, hain zuzen. Aurrez-aurre E.R.Matxain Ile-

apaindegia taldea izan zuten eta lehia pare-parekoa izan zen, luzapena jokatu behar izan baitzen irabazlea nor izango zen jakiteko. Arauzko denbora binako berdinketarekin amaituta, Tximistakoe bestebigol sartu zituzten luzapenean eta txapelak jatzela lortu zuten.

Aurretik 3-4. postuak erabakitzeke neurketa jokatu zen eta bertan Badago erraz nagusitu zitzaion Morapio. Jende dexente hurbildu zen anexora partiduok ikustera eta ondoren, ohiko txikiteoa eginda, Beti Alai pilotalekuan elkartu ziren denak bazkariatz gozatzeko asmoz. Herriko kaleetan animazioa izan zen nagusi arratsaldean, 300en bat lagunok hor ibili baitziren tabernaz taberna.

Aitor Calvillo

CUESTA

oihaldenda

Kortinak, alfonbrak, etxeko arropak
Oihalak
Jai zoriontsuak denoi!
Plaza Nagusia, 4 ORDIZIA



JOSUNE

ESTETIKA ZENTRUA

- ✳ Tratamendu bereziak: gorputz eta aurpegirako.
- ✳ Mikropigmentazioa: ezpainetako eta betiletako makilaje iraunkorra
- ✳ Zutikako eguzki-kabina: gaur egun munduan dagoen azkarrena eta irauntzaileena ere badaukagu, 8 minututan azala belztu eta babesten duena

J. M. Barandiaran pl., 3 ☎ 943 88 28 88 ORDIZIA



Artesania
Opariak

K. Nagusia, 28
☎ 943 16 02 48
ORDIZIA



OINETAKOAK
OSAGARRIAK

Festa onak pasa!

J. M. Barandiaran Plaza, 3
☎ 943 88 61 77 ORDIZIA

ORBELA

TABERNA

Pintxo bereziak!
Jai zoriontsuak pasa ditzazuela opa dizuegu!

☎ 943 88 28 83
Plaza Nagusia ORDIZIA

ZERAIN

Abuztuak 14, ostirala:

12:00etan: Herriko gazteen arteko futbito txapelketako azken partidua.

16:00etan: Haur jolasak.

19:00etan: VII. Andramari pala txapelketaren finala.

20:00etan: Kanpai bueltakoa eta suziriak festei hasiera emateko.

20:00etan: Ohiko gibel jatea Liztormendi elkartearen.

23:00etan: Haur eta helduen danborrada.

Ondoren: Estanga anai-arrebak trikitilariak.

Abuztuak 15, larunbata:

9:00etan: Txistularien goiz eresia.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Txakolin dastaketa herriko plazan.

12:00etan: Herriko gazteen kontzertua plazan.

17:00etan: Andramari bola txapelketa.

18:00etan: Pilota partiduak.

20:00etan: Zeraingo X. Trikitilari txapelketa herriko plazan.

23:00etan: Musutruk taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 16, igandea:

9:00etan: Txistularien goiz eresia.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Herri-kirolak.

Ondoren: Sebastian Lizaso eta Imanol Lazkano bertsolariak.

17:00etan: Andramari bola txapelketa.

20:30ean: Herri-afaria plazan, Lizaso eta Lazkano bertsolariarekin eta Gillermo Segurola txiste kontalariarekin. (Izen ematea arratsalde berean, 19:30 aurretik).

Afalondoren: Kristina, Amaia eta bere taldearekin dantzaldia.

1:00ean: Mozorro gaua, mozorrotuen desfilea eta sari banaketa (10.00, 5.000 eta 3.000 pezeta).

ITSASONDO

Abuztuak 13, osteguna:

18:00etan: Txupinazoa.

18:00etan: Haurren arteko futbol txapelketa.

19:30ean: Gazteen arteko futbol txapelketa.

21:00etan: Afaría Gaztetxean.

Abuztuak 14, ostirala:

9:00etan: Trikitilarien diana.

12:00etan: Soka-dantzaren berreskuratzea, Udal korporazioaren eskutik.

13:00etan: Hamaiketako beheko plazan.

18:00etan: Zinta karrera.

13:30ean: Salbea.

20:30ean: Kalejira herriko txistulari eta buruhandiekin.

21:00etan: Herriko afaria beheko plazan. (Izenak aurretik eman ohiko lekuetan).

23:00etan: Alaitz eta Maider trikitilariak.

Oharra: goizean eta arratsaldean haurren parkea izango da beheko plazan.

Abuztuak 15, larunbata:

9:00etan: Txistularien diana.

10:00etan: Txirrindulari afizionatuen lasterketa.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:30ean: Lasterketaren amaiera eta sari banaketa.

18:00etan: Pelota partiduak: jubenilak: Iraola-Gurrutxaga Mendizabal-Eskisabel; afizionatuak: Artola-De Luz Saralegi-Etxeberria.

19:00etan: Sagardo dastaketa eta 'Pasai' txaranga.

23:00etan: Mus txapelketa udaletxe azpian.

23:30ean: Iker Goenaga trikitilari eta 'Benetan' taldeara. Mozorro lehiaketa.

3:30ean: Jokoak: orgatilak, lasterketak...

6:00etan: Danborrada.

Abuztuak 16, igandea:

9:30etan: Txistularien goiz eresia.

11:00etan: Meza Nagusia.

11:30ean: Beheko plazatik Altzagarateko igoera.

16:30ean: Haurrentzat txirrindu proba.

18:00etan: Toka txapelketa.

20:00etan: Patata tortila txapelketa.

23:00etan: Triki-Trake taldearekin dantzaldia.




ZERAINGO UDALA

Abuztuko egun horiek oso aproposak izan daitezke bertako txoko, ibilbide eta altxor historiko-artistikoak ezagutu ahal izateko.

Zatoz, gonbidaturik zaude.

Zeraingo Udalak Andramari jai onak opa dizkie herritar eta kanpotarrei



SEGURA

Luixito Eibarrera

Luixito Garmendia futbolaria, Beasainen, Sestaon, Las Palmasen eta Ceutan aritu ondoren, Eibar futbol taldeak fitxatu berri du datozen 2 denboralditarako. Bere azken taldean, Ceutan, 3. mailatik 2-Bra igotzea lortu ondoren, 2-An jokatzeko aukera izango du orain, etxetik 1.000 Km gertuago.



V. Gazte afaria

Oxiña igerilekuko arduradunen iniziatibaz, gazte eta gazte sentitzen direnentzako afaria antolatu da uztailaren 17rako. Menua: patata tortila, entsalada, oilaskoa saltzan eta izozkia. Prezioa: 1.000 pezeta. Aurrez, bitartean eta ondoren herriko trikitilari, bertsolari eta abeslariak izango dira. Txartelak igerilekuan erosi behar dira.

Argazkia presoentzat

Segurako presoan aldeko taldeak argazki lehiaketa antolatu du. Bertan, edozein euskalerritarrek parte har dezake, taldeka nahiz bakarrik. Lanak zuri-beltzean edo koloretan, gehienez bi. Neurri librea. Gaia: Euskal Herria. Lan bakoitzaren atzekaldean egilearen ezizena jarri behar da. Kartazal baten barruan datu pertsonalak eta kanpoan ere ezizena. Argazkiak irailaren 12a baino lehen bidali behar dira ondorengo helbidera: **Elorripe taberna (Argazki lehiaketa), 20.214 Segura**. Erakusketak eta sari banaketa irailaren 26an izango dira Elorripen. Sariak: Igoari nikia, karreteak eta 10.000 pezeta, 2.enari nikia, karreteak eta 5.000 pezeta eta 3.enari nikia eta karreteak. Oharra: argazkiak ez dira itzuliko eta presoek bidaliko zaizkie.

Futbola

Denboraldiaurrea: errejonialak eta jubenilak abuztuaren 19an elkartuko dira. Kadetak abuztuaren 26an eta infantilak irailaren 1ean. Guztia Alustiza futbol zelaian, arratsaldeko 6,30etan. Edozein kategoriatan jokatu nahi duena, ager dadila entrenamenduetara.

Bola

Uztailaren 5ean Zerainen jokatu zen beterranoen bola txapelketan, Martxeliño Agirre geratu zen lehena (44 birla). Lehiaketan, ume, emakume, heldu edo jubilatuta, edozeinek parte har zezakeen.

Labur-labur

● **Lapurretak:** uztailaren 5etik 6ra bitartean 'Guraso Elkartetik' telebista, labea, edari mardoska eta txanpon batzuk eraman zituzten. Uztailaren 8tik 9ra, berriz, 2 ate behartzen ahaleginduz, igerilekuan izan zen saiakera.

● **Jon Ander Hombrek** ezin izan zuen Castellanosekin batera Añorgako torneoaren finalera iritsi, 22-21 galdu ondoren Huizi eta Apezetxearen kontra. Intxaurrendoko txapelketan ere emaitza berberarekin geratu zen finala jokatu gabe. Hasi berriak diren Antiguoko eta Usurbilgo torneoetan Jon Anderrek Castellanosekin jokatu du eta Ibon Etxe-



Etxekoandreen txangoa: pasa den asteartean 48 herritar joan ziren Santillana del Mar aldera egunpasa; argazkian azaltzen direnak.

berriak Mikelperizenarekin.

● **Gaisoen txangoa:** uztailaren 21ean Estibalizera izango dute egunpasa. Autobusa eta bazkaria 3.000 pezeta.

● **Jubilatuaren txangoa:** uztailaren 28an Biasteri aldera joango dira. Izenak, uztailaren 17an (18:00etatik 19:00etara) eta 18an (19:00etatik 20:00etara)

eman behar dira Atsedenen.

● **Informazio bulegoa:** iaz bezala, Segurari buruzko informazio bulegoa jartzeko asmoa dago abuztuaren kultur etxean.

● **Odol ematea:** urteko 2. odol ateraldia abuztuaren 29an izango da 17:00etatik aurrera Osasun etxean.

Joseba Telleria



Kirol eskolarreko balantzea

97ko urritik 98ko ekainera, LHko 2. eta 3. zikloetako 55 ikasletatik 49k hartu dute parte eskolarteko kirol jokoetan. Atletismoan, krosean, futbitoan, mendian, pelotan, mahai tenisean, trialsinean, txirrindularitzan eta tenisean ibiltzeaz gain, igeriketan ere aritu dira aurtengoan. Partehartzeari dagokionez, berriz, aurrekoan baino 7 lagun gehiago ibili dira. Ardurakorra Xabier Intxaustik eraman badu ere, mendian Txetxu Ormazabal eta Rafael Gerriko, tenisean Iker Agirrezabal, pelotan Patxi Etxeberria, eta futboleko Ibai Telleria, Uritz Gonzalez, Ekhi Albizu, Inge Olano eta Joxe Mari Gereñu ibili dira laguntzaile modura. Laiotzekoez gain, Beasainen ikasten aritu diren 20ren bat neska-mutiko inguruk ere parte hartu dute.

ZALDIBIA

I. gazte festak amaitzear

Gaur amaituko dira Zaldibiko Gazte Taldeak antolatutako gazte festak. Asteazkenean 'AHTrik ez' lelopean zenbait ekintza burutu ziren, horien artean gai horren inguruko hitzaldi bat. Ostegunean 'Gazte mugi hadi!' izan zen aldarrikapena eta honen gainean ere kafe-tertulia bat egin zen soziologo batekin (Iñaki Iurrebaso), 'Euskal gazteria XXI. mendean' gaitzat harturik.

Azken egun hau presoei eskainiko zaie. Hauxe da egun honetarako prestaturiko egitaraua: **15:00etan** 'presoak oroitzuz': postalak idatziko zaizkie ekimenaren berri emanaz. **16:30ean**: mus txapelketa azkarra. **19:00etan**: Martutenera martxa. Gazte Taldeak bat egiten du Amnistiaren Al-

deko Komiteak antolaturiko ekimenarekin. **21:00etan**: martxatik bueltan poteoa trikitilari eta bertsolariekin. **22:00etan**: herri-afaria gazte, heldu nahiz zaharrentzat.

Martutenera martxa

Zaldibiko Amnistiaren Aldeko Komiteak martxa bat antolatu du Martuteneko espetxera 'eskubideak dituztelako defenda ditzagun' lelopean. Martxa hau arratsaldeko zazpitan aterako da herriko plazatik eta afalordurako bueltatuko da. Gestorak pixkat lehenago azaltzeko eskatu nahi die ekimen honetan parte hartu nahi dutenei, kotxeetan joateko antolatu daitezen.

Bestalde, espetxe honetan Juan Mari Olano mahai nazionalakide eta herritarra

bertan dagoela gogorarazi nahi dute. Martxa honen helburua, berari eta beste guztiei, daramaten borrokan elkartasuna adieraztea da. Martuteneko preso hauek igandero baraualdian dihardute, beraien eta Euskal preso guztien eskubideak errespetatu daitezen eskatzeko.

Pilota

Aratz Mendizabal eta Ibon Gurrutxaga herriko gazteak bi final jokatzeko sailkatu berri dira. Kadete mailako pilotari hauek datorren igandean jokatu dituzte Ordizia eta Añorgako pilota txapelketetako finalak.

Bestetik, aipatu ere Donostiko Antiguoko pilota txapelketa hastear dagoela. Bertan Aitzol Sukia herrita-

rra arituko da Ekaitz Saralegi Amezketarrarekin batera.

Udaleko diru laguntzak

Gogoratu, udalak euskara ikastaroetan ibilitakoentzat eta Udako Euskal Unibertsitatera (UEU) joateko asmoa dutenentzat diru laguntzak emango dituela. Informazio gehiago eta izena eman nahi duenak, Kultur Etxera deitu beharko du.

Kultur Etxea

Kultur Etxea uztailean zehar goizez bakarrik irekitzen da eta abuztuan zehar, bertako arduradunak oporrak hartuko dituenek itxita egongo da.

*Iñaki Gurrutxaga
Saroi Jauregi*

GABIRIA

Festetako egitaraua

Garai xamar baldin bada ere, hona hemen Udalak moldatu eta prestatu duen herriko jaietako egitaraua.

Abuztuak 14, ostirala:

18:00etan: Suziri eta kanpaiek festen hasiera iragarriko dute.

18:15ean: Futbol partidua herriko gaztetxoaren artean.

Arratsaldean zehar: Biri-bilketa baserri baserri herriko txistulariekin.

22:30ean: Bertsolari jaialdia: Andoni Egaña, Jon Sarasua, Jon Maia, Jokin Sorozabal, Amaia Agirre eta Nahikari Gabilondo.

Gauean: Erromeria Kiñu taldearekin.

Abuztuak 15, larunbata:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Gazta lehiaketa herritarrentzat.

12:15ean: VII. Ormaiztegitik Gabiriarako igoera txirrinduz herritarrentzat.

18:00etan: Herri-kirolak: Gabiria eta Aztiriako taldeekin.

19:00etan: Afizionatu mailako pilota partidua.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketa, eskualde eta herri mailan.

Arratsaldean eta gauean: Etzakit musika taldearekin dantzaldia.

Gauerdian: Txerri harrapaketa.

5:00etan: Baratzuri zopa denontzat, Erbie elkartearen.

Abuztuak 16, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Goruntz dantza taldea.

17:30ean: Ume jolasak eta moztar dantza.

Arratsaldean zehar: Trikitilariak.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketak.

19:30ean: Sagardo eta txistor dastaketa.

Gauean: 'Maixa eta Ixiar' taldearekin dantzaldia eta moztar dantza.

21:30ean: Koadrilen arteko afaria.

5:00etan: Txokolate jana denontzat, Osinalde elkartearen.

Abuztuak 17, astelehena:

11:00etan: Meza, herrian hildakoen alde.

12:00etan: XVII. Tiragoma txapelketa.

12:00etan: Bola eta toka herritarrentzat.

Ondoren: Kalejira herrikoia.

18:00etan: Aintzinako ohitura, ardo beltz banaketa herriko zagiardotik.

Arratsaldean eta gauean: Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia eta Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitilariarekin erromeria.

Abuztuak 18, asteartea:

17:00etan: Herria txukuntzera etorriko gara, eta ondoren, lanean aritu diren guztientzat afari-merienda.

ATAUN

Auzolandegia herrian

Gaztekutxak eta udalak bultzatuta, auzolandegia izango dugu Ataunen, uz-tailaren 20tik abuztuaren 2ra arte. Bertan parte hartuko duten gazteek San Gregorioko errota multzoaren azpiegitura hidraulikoa (kanala, aldaparoa, turtuka...) berreskuratu eta garbitzea izango dute egitekorik nagusia. Izan ere, errota hau balio arkeologiko handiko ondarea dugu: Aro Modernotik datorkigu, multzo osoa oso ondo kontserbatzen da oraindik eta toki nahiz inguru oso erakargarriak ditu. Errotan bertan, txokolatea egiteko harria eta zerrategia ere ba omen dira. Gauza horiek guztiak, ordea, ezkutuan daude, sasi artean edo ur azpian "galdu-ta" eta denon agerian jartzeari da auzolandegiaren helburua, bide batez, herriko ondarea gehituz eta ingurunea (bertatik pasatzen den ibilbide kulturala) aberastuz.

Auzolandegian gazteok izango duten bigarren egitekoa (beti ere aurrekoak astirik uzten badu eta uzten duen neurrian) Intsaustiko Parke Botanikoan dauden zuhaitzak katalogatzea izango da, basoko espezie ezberdinak bereizten, planoak erabiltzen eta kartografiatzen ikasiz. Era berean, zuhaitz bakoitzaren inguruko garbituko dute. Hala ere, bigarren ekintza

hau denboraren arabera egingo da ala ez da egingo eta behar bada, beraz, beste urte baterako utzi beharko da.

Auzolandegia 15 egunekoa izango da eta horietatik bederatzi egunetan izango dira gazteak gure herrian. Egunko egitaraua, berriz, haxe: goizetan egitekorik nagusienean arituko dira (hau da, errota txukuntzen) eta arratsaldean, ibilaldiak egingo dituzte herritik zehar (Ataungo Domora...), horrela gure herriko ikuspegi zabala bereganatuko dutelarik. Asteburuak pasatzera, berriz, San Adrian eta Hondarribira joango dira.

Gazteei zuzendutako auzolandegiak izan ohi dira Gaztekutxak antolatzen dituenak eta Ataungoan 20 gipuzkoar izango ditugu, 18-21 urte bitartekoak, elkarrekin lan eginez denon ondarea berreskuratzeko asmotan. Modu honetan, etxetik irten gabe etxekoa ezagutu eta preziatzeko aukera ematen zaie. Esan behar da gainera, gazte horiek estreinatuko dutela ofizialki Gabillene zahar berritua, bertan lo egingo dute eta.

Teknikari bezala Aranzadiko arkeologoa den Alfredo Moraza arituko da eta laguntzaileak izango ditu Antxon Agirren Sorondo (estatu mailako Errotagintza Elkarteko lehendakaria)



Azken bi asteotan natura eta kirola uztartzen dituzten bi ikastaro izan ditugu herrian, herritarrei zuzenduta: lehenengoa, **eskalada** ikastaroa, uztailak 6-10 bitartean egin zen Jentilbaratzan eta 4 lagunek hartu zuten parte; bigarrena, berriz, **piraguismo** ikastaroa, uztailak 13-17 bitartean egin berri da Agauntza ibaian, Urkiola inguruan eta bertan 27 herritar aritu dira.

eta Josune Zaldua herritarra, besteak beste.

Herriko kultur eta natur baliabideen inguruan sortu nahi den Joxemiel Barandiaran Interpretazio Zentrua gogoan, aurrera egiten den urrats bat izan nahi du auzolandegi honek.

Labur-labur

● Herriko **iturrietan otso buruak** jartzen hasi da udala, ataundarrok otsoak garenaz. Ibilbideekin lotuta dagoen ekimena da hau eta hasteko, Astigarragan ipini dute lehena.

● **Artxiboa** inbentariatzen arituko dira ondorengo 3-4 hilabeteetan Iñaki Imaz eta Iñake Barandiaran herritarrak. Lana bukatutakoan, dokumentuak mikrofilmatzeari hasiko zaio.

● **San Martingo elizaren teilatu berritze kanpaina:** azkenekoz orain 25 urte konpondu zen eta dagoeneko itxuraz asko du teilatu zaharrak. Horregatik, berritze lana ahalik eta azkarren egitea komeni da eta horretarako, 36 milioi behar! Horietatik 14 milioi eliztarren artean biltzea da erronka, bost urtetako plan batean, 1.500 pezeta familiar eta hileko. Hala ere, jakina, bakoitzak ahal duenaren neurrian eman dezake, gehiago ala gutxiago. Eliza, kulto lekua izateaz gain, herriko ondarea ere bada eta ahal den neurrian, denon artean zaindu beharrekoa. Animo, bada!

● Oporrak direla, oporrak! Ondo pasa eta deskantsatu!

Josune Aldabe

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

☎ 943 88 04 15
☎ 943 16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA

IDIAZABAL

Futbol talde berria

98-99 denboraldian bigarren erregional mailako taldea izango da Idiazabalen. Herriko gazte batzuen ekimenez sortu da talde berria eta dagoeneko entrenatzen ari dira. Irailetik aurrera lehian izango den taldea Xabier Nuñezek zuzenduko du eta Idiazabalgo Kirol Elkartea erregional mailan aritzen den lehendabiziko aldia izango da.

Idiazabal Kirol Elkartearen aritzen diren beste futbol taldeek dagoeneko amaitu dute berien denboraldia:

Gazteen lehenengo mailako taldeak ezin izan dio kategoriari eutsi. 18 taldeen artean azken bigarren sailkatu dira. Aurtengo denboraldi kaskarraren ondoren lortutako 29 puntuak ez dira nahikoak izan taldeak maila horretan jarraitzeko.

Kadeteen lehenengo mailan aritu den taldeak 12 taldeek osatutako ligan hamargarren bukatu du. Jei-



Uztailaren 24an arratsaldeko 6etan jokatu da herriko hirugarren triatloia. 3 lagunek osatutako taldeak arituko dira lehian, guztira hiru froga egin beharko dituzte: korrika, igeri eta bizikletaz. Argazkian iazko triatloiko parte hartzaileak.

tsiera fasean ordea mailari eustea lortu du. Denboraldia oso ondo hasi ez zuten arren, azkenerako egoerari buelta ematea lortu dute.

Kadeteen bigarren mailakoek zazpigarren postua lortu dute 10 taldez osatutako ligan. Ondoren kopa jokatzeko aukera izan

dute. Sei taldeen artean egindako lehiaketan bosgarren postua lortu dute.

Haurren lehenengo mailako taldea ligan azken geratu da. Jaitsiera fasean, ordea, bigarren postua lortuta mailari eutsi dio. Kirol Elkartea gustora dago talde honen emaitzarekin

"maila hau oso gogorra delako eta bertan jarraitzea lorpen handia delako".

Errealaren lagunak

Errealaren lagunak taldekoek asteazkenean, uztailak 15, egin zuten urteroko afaria. Ohiturari eutsiz Errealeko jokalariei bati oroigarria eman zioten, aurten Lorenen txanda izan da.

Afari berean Aiert Zufiria herritarrek jubenil mailako jokalariei onenaren saria jaso zuten.

Tenis txapelketa

Uztailaren 13an hasi zen tenis txapelketa. 16 lagun ari dira buruz buruko lehiaketan. Kanporaketak egin ondoren uztailaren 27an jokatu da final aurrekoa eta 29an finala. Partiduak Zelako kiroldegian ari dira jokatzen arratsaldeko 6etan hasita.

Xabier Urteaga

ZEGAMA

Denbora batean zehar herriar talde batek, Goiekiko teknikarien laguntzaz Zegamako herriaren azterketa egiten ari da herriko berezitasun eta hutsuneen jabe eginez. Lan honen fruitu bezala, herriko datu objektiboen ezagutza, herriak dituen abantaila eta desabantailak ikustea, zein etorkizunari begira joratu beharreko estrategia eta ekintzen diseinua lortuaz.

Honen guztiaren aurkezpenaren ondoren, taldeak aurrera jarraitzeko asmoa

du, gogoetan jasotako hausnarketak eta ideiak gauzatzeko bide eginez edo behintzat mugiaraziz.

Honetarako herritarren ahalik eta partaidetza handiena izatea interesgarria da alor desberdinak ikutzera koan. Hau dela eta, denek, uztailaren 21an, iluntzeko 8etan, Kultur etxean egingo den bilerarako gonbitea luzatzen zaizue.

Gogoeta estrategikoa aurrera doa

Ai ene, Ai ene 24.a San Bartolome

Abuztuan sartzerako festagiroa nabarmentzen dela eta, hemen San Bartolome jaien programaren laburpena:

Abuztuak 22, larunbata: Koadrilen eguna, mozo-erroak eta Etzakit taldea, goizaldera sokamuturra.

Abuztuak 23, igandea: Txirrindularitza proba, gomazko gurgildun trena eta Eganekin dantzaldia.

Abuztuak 24, San Bar-

tolome eguna: Meza Nagusia, dantza saioa, pilota partiduak eta Drindots.

Abuztuak 25, asteartea: Bertsolari eta trikitilariak, Joselu Anaiak eta suziariak.

Abuztuak 26, asteazkena: Ume jokoak, Globo Aerostatikoa, e.a.

Abuztuak 28 eta 29: Tabernariak antolatutako festa egunak.

Abuztuak 30: LXV. San Bartolome Txirrindu froga.

BEASAIN

Ekaitz Goikoetxea Euskal Herriko txapeldun



Ekaitz Goikoetxea bertsolaria, bi aldiz jarraian, Euskal Herriko Eskolarteko txapeldun

Ekainaren 30ean Mungian jokatu zen Euskal Herriko Eskolarteko bertsolari txapelketan txapela jantzi zuen Ekaitz Goikoetxeak, iaz egin zuen bezalaxe. Garai-pen honekin emango dio agurra eskolarteko txapelketari, 18 urteak beteak baititu. Orain, nagusien mailan parte hartzeko asmoa dauka, Gipuzkoako txapelketan lehen urratsak emanaz. Eskolartekoan, txiki mailan ere txapela jantzi zuen, duela 4 urte.

Finaleko saioarekin eta bere buruarekin gustora gelditu zen Ekaitz. "Oso gustora jardun nuen, konfidantza handiarekin eta segurtasun handiarekin. Nik uste orain arte txapelketa batean egin dudana saiorik onena egin nuela".

Errima eta hizkuntza aberatsa erabiltzen saiatzen da beasaindarra. "Idazterakoan gustatzen zait ezohikoa den hizkuntza erabiltzea, metaforekin eta hain ezagunak ez diren hitzekin piska bat jolastuz. Betikotik atereaz. Eta etorri bezala egiten zaizkit, esaldiak hainbeste irakurtzetik. Irakurtzen ari naizela ere,

gehien gustatzen zaizkidan esaldiak apuntatu egiten ditut. Eta gero horiek erabili Bat-batean zaila da esaldi horiek etortzea, aurretik landu behar dira". Hori bai, gehiegi erabiliz gero, jendeak ez ulertzeko arriskua egon daiteke. "Bai, baina iruditzen zait ez nuela gehiegi erabili. Neurtu egin behar da, ezin da ulertezina gertatu daitekeen bertso oso bat egin, gutxienez mezua ulertarazi behar zaio entzuleari. Lehenengo urtea da estilo hau erabili dudana, poesigintzan nahiko murgildua bainago orain. Dena den, hizkuntz hau gehienbat bakarkako lanetan erabiltzen dut. Ofiziotan gerta litekeelako lagunak ez ulertzea".

Eskolarteko zikloarekin bukatu du, lorpen eta sari askorekin. Aurrera begira, orain arteko bidearekin jarraitzeko asmoa dauka, lan eginez, gogoz eta ilusioz. "Nahiz eta uda etorri entrenatzen jarraitzeko asmoa daukagu Joxe Munduatek eta biok. Gipuzkoako txapelketa nagusia ere gainean daukagu, datorren urteko udaberrian, eta prestatzen

jarraituko dugu. Aurtan, txapelketan parte hartu dezakegun 120 bertsolari gaudete eta formula berriren bat sartzeko asmotan dabilta, herrikako edo bailarakako txapelketa". Joxe Munduatekin batera, Jexux Goikoetxea ataundarrarekin entrenemantu bereziak egiten ditu bertso-eskolatik kanpo. Etxean bakarka egiten den lana ere oso garrantzitsua

omen da. "Mikel Mendizabalekin batera, Jexux Goikoetxea eta biak izan dira niri iritsi naizen lekura iristeko euskarri oso garrantzitsuak".

Euskal Filologia ikasten hasiko da Ekaitz irailean Gasteizen. Hango bertso-eskolan erakusten edo laguntzen hasteko asmoa dauka.

Aisialdiko begirale ikastaroa euskaraz

Begirale ikastaroa egiteko, ikastaroa amaitzen den urtean 18 urte bete behar dira. Taldea osatuz gero, ikastaroa urriaren 10ean hasiko da eta 200 ordukoa izango da. Klaseak asteburuetan eta jaiegunetan izango dira. Matrikula: 30.000 pezeta. Irailaren 18ra arte dago irekita izenak emateko epea, Udaletxeko Euskara-zerbitzuko 943-805251 telefonon, eguerdiko ordubatera arte.

Elbarrituei norbanako laguntzak

Ezintasunak dituzten elbarritutako pertsonentzat laguntza teknikoak eta bestelako norbanako prestazioak eskatzeko epea irekita dago. Elbarrituen legezko izaera duten eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan erroldatuta dauden pertsonak edukiko dute Laguntza-plan honen onuradun izateko aukera. Laguntza motak hauek dira: asistentzia espezializatua (erakundearen tratamendua eta famili harrera), laguntza teknikoak (automugikortasunerako, moldaera pertsonalerako eta entzumenerako protesiak) eta aparteko laguntzak. Laguntza hauen eskaerak, Gizarte Ongizate Sailean aurkeztu behar dira, aurretik 943-805238 telefonora deitu beharko da, eguna eta ordua jartzeko. Eskaerak aurkezteko epea abuztuaren 8an bukatuko da.

I. Igartza beka: 14 lan

Udalak, CAF enpresarekin eta Elkarlanean argitaletxearekin elkarlanean antolatu duen I. Igartza literatur sorkuntzarako bekara 14 proiektu aurkeztu dira. Denak ere, 35 urtez behetikoak izaki, bi liburu baino gutxiago argitaratuak dituzten idazleek aurkeztu dituzte. Orain, Andoni Egaña, Joan Mari Irigoien eta Xabier Mendiguren Elizegi epaimahai-kideek, bekaren irabazlea aukeratu beharko dute irailaren 5erako eta ondoren, aukeratuak, sariaren erdia jaso eta gehienera ere urtebeteko epean burutu beharko du bere lana. Idazlana entregatzean jasoko du sariaren beste erdia.

Kronista berriaren beharrea

Aitor Arruek utzi egingo du orain arteko kronika egiteko lana, eta bere ordezkorekin bila gabiltza. Herriko kronika idazteko prest dagoenak, dei dezala 943-889612 telefonora.

LAZKAO Frontoia eta Dukearen parkea inauguratuak



Uztailaren 4an inauguratu zituzten, hainbat berrikuntza egin ondoren, plazako frontoi irekia eta Dukearen parkea. Inaugurazio ekitaldian Iñaki Txueka Nekazaritza eta Ingurugiro diputatua, Arritxu Marañon Kirol eta Gaztedi diputatua, Txato Agirre Jaurlaritzako Kultur Sailburuordea, Errandonea eta Nagore pelotariak izan ziren beteak beste. Ekitaldi honetan herriko hainbat pelotari zaharrei omenezko bat egin zitzaion.

Udako ekitaldiak

Hona hemen Maizpide Euskaltegiak uda honetarako antolatutako gainerako ekitaldien berri:

Uztailak 20, astelehena, antzerkia bertsotan Goierriko bertso-eskolakoen eskutik. 'Kriston Gaua' antzetzuko dute, Maizpideko zinema aretoan arratseko 9etan.

Uztailak 23, osteguna, Ruth eta Amaia trikitilariak, afalostean Maizpiden.

Abuztuak 12, asteazkena, Koldo Ameztoty ipuin kontalariaren emanaldia, Maizpideko zinema aretoan arratseko 9etan.

Abuztuak 20, osteguna, kantaldia Mikel Telleria abeslariaren eskutik. Maizpideko zinema aretoan, arratseko 9etan.



Anjel Vazquez bikain

Denboraldi bikaina egiten ari da lazkaotar txirrindularia aurtan. Postu onak lortu ditu urtean zehar, hala nola, laugarrena Usurbilen eta Intxaurrendon. Baina, orain arteko posturik onena, uztailaren 5ean lortu zuen. Anoetan jokatu zen Gipuzkoako Txapelketan bigarrena izan genuen bere taldekide baten atzetik. 'Muebles Ordizia' taldean dabilen lazkaotar hau ilsioz gainezka dago, datorren urteari begira afizionatu mailan aritzeko aukera handiak baititu. Berarekin egon ginenean oso pozik zegoen egindakoz eta gure bidez eskerrak eman nahi dizkie bere taldeko mediku diren Jose Ramon Elkorro eta Jokin Garruesi.

Abuztuak 26an, asteazkena, trikibertso jaialdia, Maizpideko zinema aretoan, arratseko 9etan. Koldo Iparragirre trikitilaria eta Andoni Egaña eta Iñaki Murua bertsolariak.

Udal Liburutegiak ordutegi berria

Udal Liburutegiak ordutegi berria izango du uztaila eta abuztuan. Goizez bakarrik egongo da zabalik, 10etatik eguerdiko ordu batera. Larunbatetan ez da zabalik izango.

Bakoitzari berea

Aurreko alean San Benito Ikastolako ikasleen emaitzak jarri genizkizuen, baina, tamalez, ahaztu egin zitzaigun emaitza bat jartzea, beraz, bakoitzari berea. Irati Aldanondok bigarren postua lortu zuen Gipuzkoako txapelketan, disko jaurtike-tan.

Urko Irastorza

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK

UNTXUNDEI

garajea



OSINALDE

karrozategia

☎ 943 88 28 21

☎ 943 16 07 06

ORMAIZTEGI

TXAPEL GORRI ELKARTEAK ANTOLATZEN DU 'PRUEBA VILAFRANCA DE ORDIZIA'

Ordiziako txirrindulari proba ezagunaren 75. edizioa

Santiago egunean izango da Ordiziako txirrindulari probaren 75. edizioa. Ospakizun hori dela eta, ahal den lasterketarik onena egin nahi izan dute Txapel Gorri elkarteak. Faustino Etxebarrieta, antolakuntzako zuzendariarekin eta Jose Luis Sanz, probako zuzendari teknikoarekin izan gara antolakuntzaren gora-beherei buruz hitz egiten. Jose Luis, gainera, nazioarteko epailea da eta bera da txirrindulariekin hitz egin eta ekartzen dituen.

- Nola ospatu behar duzue 75. urteurrena?

Honelako efemeride batean zerbait berezia egiten saiatu beharra dago. Lasterketa berez Espainia mailako onenetakoa da Donostia-Donostia klasikoaren ondo-



Partehartzaile bikainak Ordizian

Aurten ahalegin handia egin dute antolatzailerak ahal den txirrindulari garrantzitsuenak Ordizian izateko. Taldeak ondorengoak izango dira: Banesto, Estepona, Euskatel-Euskadi, Kelme, Once, Vitalicio, Festina-Lotus, Casino, Cantina-Tollo, Avianca-Telecom, Mapei eta Polti. Orain arte ziurtatuta dauden txirrindulari aipagarrienak hauek dira: Mapeiko Vandenbroucke eta Bugno; Poltiko Guerini, hau Giroan 3. izan da, eta Rebelin; Cantina Tolloko Gontchar; Casinoko Pascal Richard eta Vinokourov etorkizun handiko gaztea; Festina Lotuseko iazko garaile den Lefevrez gain (argazkikoa), Belli eta Bortolami klasikomanoak; Avianca-Telecomeko Casteblanco eta Peña; Banestoko Aitor Garmendia eta De Las Cuevas; Euskatel-Euskadiko Gonzalez Arrieta eta Haimar Zubeldia; Kelmeko Roberto Heras, etorkizunerako taldeak duen mendiko figura, eta Angel Edo; Onceko Zarrabeitia, Etxebarria eta Cuesta; Vitalicio Clavero, Dominguez eta Freire. Beraz, Tourrean ez dauden txirrindulari garrantzitsuenak bertan izango dira. Tourreko zuzendaritzak baimena ematen die, bertan erretiratzen direnek Ordizian parte hartu ahal izateko.

ren. Lasterketa beti izan da ona eta aurten beti bezala uztailaren 25ean Santiago egunez Ordiziako jaietan ospatuko da. Orainarte aurrekontu handiak izan badiugu, oraingo honetan bulzada bat emango diogu. Garbi dugu diru-bilketan iristen gareneko punturaino iritsiko garela gastuetan ere. Herriarentzat egiten dugu proba, ez dirua egiteko eta horrelaxe jarraitzeko asmoa dugu.

- Zein aurrekontu duzue?

Aurreko urteetan 13 milioi inguruko aurrekontua izan dugu eta aurten 19ra gerturatu gara. Hori txirrindulariei ordaindu gabe, bidaia eta egonaldia bakarrik ordaintzen zaie. Udalak urtero milioi bat baino gehixeago ematen ditu, eta aurten 75. urteurrena dela eta, iaztik aurrekontuetan milioi bat gehiago ematea erabakia zuen, dena 2. 300.000 pezeta, Eusko Jaurlaritzak milioi bat eta Diputazioak 700.000 inguru ematen dizkigute. Garrantzitsua da ditugun 450 bazkide-lagun-

Jai zoriontsuak denoi!



GOITAGI
OKINDEGIA

Ogigintzan onenak!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 943 160501

- ◆ Egurrezko labeen egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea,2
ZALDIBIA ☎ 943 880737

OIANGU
TABERNA



☎ 943 88 30 03

Euskalerrria z/g ORDIZIA

LEKIM
HAROTEGIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
ALTZARIAK NEURRIRA

Ibabe Industrialdea, 11 pab. ☎ 943 16 12 83
LAZKAO ☎ (mugik.) 908 - 61 95 01



ITOITZ ogitartekoak
kafetegia

☎ 943 16 18 08
Goierri Kalea ORDIZIA

garagardo
bereziak

tzaileek bakoitzak 5.000 pezeta ematea; auto baten zozketa egiten dugu; 30-35 babesle ere baditugu, hori dena batzen joan eta ez bagara iristen norbait izaten da laguntza bat emateko prest.

- Tourrarekin batera izatea ez al da eragozpena?

Oso gutxi dira Tourrarekin batera lasterketak antolatze-
ra ausartzen direnak, baina Ordiziako festak orduan dira eta tradizioa egun horretan egitea da. Gainera urte batean uztailaren 31ra atzeratu zen eta ez zuen batere arrakastarik izan. Lasterketa ohi bezala goizez izango da. ETB ez da zuzenean izango, Tourra dela eta, baina proba Bizkaian izango balitz emango zuten. 20 bat minutuko laburpena egingo dutela baieztatu digute.

- Hala ere probaren mailari eusten diozue.

Txirrindularitzan UCiko puntuaketak garrantzi handia du. Iaz Ordiziako probak 8.900 puntu zituen eta aurten gutxi gora behera (aurreko hilabeteko datuen arabera) 17.000 puntu izango ditu. Hauek dira parte hartuko duten txirrindulariek urtean zehar lasterkete-



1922. urteko 'I. Prueba Villaranca'. Ezkerretik eskubira: Teofilo Martinez de Olkoz (moztuta), Anselmo Garmendia, Mariano Galarza, Francisco Sarasola (1922ko irabazlea) eta Joakin Lete (1923ko irabazlea).

tan pilatu dituzten puntuak. Espainia mailan Donostiako klasikak bakarrik ditu puntu gehiago, ondoren Ordiziakoa eta Luis Puch trofeoa daude berdinduta. Probaren garrantzia ikusita talde gehiago prest daude Ordiziara etortzeko baina aurrekontuak ez du ematen nahi duten guztiak ekartzeko.

Azken 5 urteetan mundu guztiko probetan epaileen informen onenak dituen da Ordiziakoa. Horrek esan nahi du zirkuitua, seinalazioa, jendearen erlazioa, hotelak... egokiak direla, hainbat detaile hartzen dira kontutan.

- Ibilbidean ba al da aldaketarik?

177 kilometro dira, lehenengo Olaberretik bira bat, ondoren 3 bira Alegi, Amezketa, Larraitz, Ordizia ibilbideari (hau da ikusleak gehien disfrutatzen duen gunea, jendea gosari eta pankartekin joaten da goiz pasa), bukatzeko lasterketa erabakitzen den 1. mailako Bidania eta helmugatik 14 kilometrora Mandubi.

Aurten garaikur berria emango diogu irabazleari, hau kuadro bat da Ordiziako harmarriarekin, taldeko garailearentzat ere portzelanazko platera elkartearen ezkutuekin izango da. Orainarte eman diren trofeoak handiegiak izan ohi dira eta irabazleek ez dakite non sartu.

- Denborarekin asko aldatuko zen lasterketa

Garai batean Atauna joaten zen proba eta Kaxetan aulki edo barrika bati buelta ematen zitzaion. Aurretik kostako itzulia ere egin izan ohi zen, Munduko Txapelketarako aukeraketa egiteko baliagarria zenez, 215 kilometro inguruko proba egin zen urte batzutan.

Hala ere, aldaketarik handiena aurrekontuarena izan da. Maila internazionala hartu zuenean, 1974 inguruan, 2 atzeritar bakarrik etortzen ziren. Zuzendariak bata besteei Ordiziako probaz ondo hitz egiten die eta geroz eta gehiagok etorri nahi izaten dute.

- 'Prueba Villafranca' erderazko izena polemikarako gaia izan da.

Probaren izena ez dugu bat-batean aldatzerik, 'Prueba Ordizia' jarriko bagenio antzinatasuna, egutegiko lehenentasuna eta beste zenbait abantaila galduko genituen. 'Prueba Villafranca de Oria' zena 'Villafranca de Ordizia'ra aldatu genuen eta orain atzetik 'Ordiziako Proba' erantsi diogu, piskana aldatzen ari gara.



- Eguneroko menua
- Asteburuetan afariak kartan

☎ 943 88 39 60

Gudarien Etorbidea
ORDIZIA

MUGAR
Argiztapenak



Jai zoriontsuak igaro ditzaue!

Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrak: 908-576580

eta 908-000831

ORDIZIA

Unanue
GOZOGINTZAK

Jai zoriontsuak opa dizkizue!

Nagusia, 17 ☎ 943 88 15 51

J. M. Barandiaran, 9 ☎ 943 88 88 36

Obradorea:

Filipinas, z/g ☎ 943 88 12 65

ORDIZIA

Nafarroa etorbidea, 10

☎ 943 16 22 66

BEASAIN



1977an jaiotako Milagrosa ikastetxeak

Gabonetan ateratako argazkia da honakoa. Ordiziako Milagrosa ikastetxeko ikasleak dira, 1977an jaiotakoak.

Goiko ilaran, ezkerretik eskubira: Kontxi Ugartemendia, Migel Angel Gonzalez, Xabi Araneta, Javi Sanchez, Mikel Agirrebengoa, Jose Alberto Salamanca, Miguel Sanchez eta Fernando Iglesias.

2. ilaran: Ignazio Usabiaga, Cristina Lopez, Monica Alcalde, Ainara Gomez, Eva Arrieta, Cristina eta Izas-kun Insausti.

3. ilaran: Amaia Zubeldia, Susana Lorenzo, Anitz Iraeta, Carol Barandiaran, ezezaguna, Marian Hernandez eta Nerea Otegi.

IRURENA

Lentzeria - Mertzeria

☎ 943 88 04 47

Urdaneta, 29 ORDIZIA



Jai zoriontsuak denoi!

MARTINEZ

Jatetxea

☎ 943 88 06 41

Santa Maria, 10 ORDIZIA



Zorion Insaustiren laguntzaz

Dietetika, senda belarrak, iriodologia, homeopatia, reflexoterapia podala eta abarretan aditua

Oreka

Dietetika eta medikuntza naturala

Kale Nagusia, 8
☎ 943 88 13 37

ORDIZIA

oreka

CGZ GOIERRI

Ikerketaren Zentrua

Gida-agiri eta arma baimenatarako ikerketak

Astelehenetik ostiralera: 11:00etatik 13:30etara.

Larunbatetan: 9:30etatik 11:00etara.

Garagarza Pl. 10

☎ 943 888734

ORDIZIA

- ✗ Uztailaren 27an itxita jaiengatik
- ✗ Abuztuaren 1etik 23ra (biak barne) itxita oporregatik

Jai zoriontsuak igaro ditzazuela!



AUSOEGI

Jai zoriontsuak!

Urdaneta, 41

☎-Faxa: 943 88 95 76

ORDIZIA

- ✗ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✗ Berogailuak
- ✗ Iturgintza
- ✗ Zeramika erakusketa
- ✗ Bainuko altzariak
- ✗ Erreforma osoak



farma



Angela San Juan Gonzalez
Farmazian lizentziatua

Urdaneta, 54 behea
- Faxa: 943 16 18 79
ORDIZIA

etxe

PARAFARMAZIA

- Haurrentzako elikagaiak eta osagarriak
- Kosmetika
- Garbitasunerako produktuak
- Belardenda eta Dietetika



OINAREN KABINETEA

Anatomiko eta atsedendiko oinetakoak.
Zuzenketarako hurren oinetakoak.
Plantilak, silikonak eta osagarriak.



LAGUNTZA TEKNIKOAK

Gurpildun aulkiak. Oinez ibiltzekoak eta bastoiak.
Minusbalio arazoak dituzten eta ohean dauden
pertsontentzat laguntzak.



BASKULARRA

Konpresio galtzerdiak eta produktuak.
Arazo baskularren prebentzioa eta
tratamentua.



KIROL ORTOPEDIA

Kirolerako ortesia.
Kirol-bendak.

ORTOPEDIA



Zugandik hurbil gaude



**Nola aurrezkatu
nire telefonoaren
faktura?**

**Konpon ahal dezaket
nire telefono mobila
arazorik gabe?**



**Zer motako mobila
interesatzen zait?**

Eta zer kontrato?

**Enpresatarako
erantzun errentagarriak
al daude?**



Banataile Ofiziala:



Erantzun profesionala

Zu urrutira eramateko

**Denda
berria
Beasainen**

movitel2000 telefono mobileko eta
finkoko talde profesional bat zure
zerbitzura.

movitel2000.k BEASAINen denda berri
bat zabaltzen du. Zure komunikazio finko
edo mobilarekin zerikusia duen guztia
erantzuteko konprometuekin. Zugandik
hurbil gaude, zu urrutira eramateko.

“Gu ezagutzera”
etor zaitezte gure denda berrira

K/Oriamendi -Etxe Ubi-
(Aurrezki Kutxa Laboralaren parean)

BEASAIN



Erantzun profesionala

Uztailak 7-tik Abuztuak 3-ra

**ORAIN EKIALDE URRUNA
BESTE BEGIEKIN
IKUSTEN DUT**

ASIA
GERTURAGO.

PRYCA

Entzuten zaitugu